

# 1610. urtea.

## Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurri buruz

**Juainas Paul Arzak**  
Bigarren Hezkuntzako irakaslea, Bidasoa Ikerketa Zentroko kidea

Sorginkeriak izan zuen konplexutasunean, Zugarramurdi eta inguruetan maltzurkeriari zein bide ireki zitzaion azaldu dugu eta tokiko botereen parte-hartze zehatza irudikatzen saiatu gara. Estatuen arteko gerraren eta espioitzaren testuinguruan asmatu ziren akelarrea eta sorginkeria. Bertako izen-deituradun pertsonak asmatu zuten. Zergatiak eta ondorioak ezagutzen ahalegindu gara eta herritarren erantzuna aztertu dugu, epaiketa zibil bat dela medio.

**About the wicked mythicizing of the witches in Navarre in 1610.** Taking into account the complexity of the witchcraft, we have explained how those from Zugarramurdi let free way to wickedness and we have showed the precise taking part of the local political forces. Within a framework of wars between States and espionage, and under personal names and surnames, "Akelarrea" and witchcraft was invented. Knowing both their reasons and their consequences, we have analyzed how local people reacted, by means of a Civil judgement.

## 1. Sarrera

Henningsen-ek frogatu zuena frogatu zuenetik, hots, Zugarramurdiko sorginke-riaren inguruko gezur basa (Henningsen, 1983), ikertzaileen lanek eta hausnar-kekek norabide zehatzak aztertu dituzte afera honetan. González de Garaik eta Stürtze-k (1987) estatuen parte-hartzea nabarmendu zuten; Mikelarenak (1989), aldiz, tokiko botereen protagonismoa.

1993koak izan ziren Martínez de Gorriaránen eta Azurmendiren lanak. Horietariko lehenak testuinguru zabalago batean kokatu zituen bai estatuen, bai boteretsuen paperak. Bigarrenak azterketa antropologikoa egin zuen. Berrito Henningsenek 1995eko lanean eskaini zigun bere hausnarketa non, tesia manten-tzeaz gain, gaitzetsi egin zuen tokiko jauntxoan garrantzia, Harris-en (1974) hipotesia marxismo dogmatikotzat baztertuz. Mikel Azurmendik (1995) harira hartu zuen okasioa AEK-larre besta errefusatzeko eta akelarrearen asmakizuna plazaratzeko. Halaber, Axularren isiltasuna nabarmendu zuen. Aferak, dena den, ez zuen oreka nahikoa, ez baitziren ongi uztartzen maila desberdineko botereen portaerak.

Hala ere, «nahiz eta gaia hain jorratua izan, erakargarritasuna ez du galdu, eta autoak —sarritan aurrez ezagututa ere— goitik behera transkribatzen edota berrargitaratzen jarraitzen da», Mikel Zabalak (2001: 51) dioen bezala.

Autoa dugu iturri bakarra, neurri handi batean, baina aldameneko prozesuek eman ditzaketan beste argibide interesgarri batzuk plazaratu zituen Rilovak (1998; 2000). Antzeko kasuak jorratu zituzten Otazuk (1978) eta Zudairek (1972-73), Idoatek (1981) eta Carnicer García - Marcos Rivasek (1998), bakoitzak bere aldetik.

Autoaren gure irakurketa eta aipatutako en emaitzak kontuan harturik plazaratu genituen orain laburtuko ditugun ondorioak (Paul, 1999). Harrez geroztik, haiek osatu ditugu eta hemen azalduko dugun prozesu bat ere aztertu dugu: Arraioz, 1610-1613. Bertan herritarren artean gatazka nola bizi izan zen antzeman daiteke. Prozesu zibilen iturriak duen garrantzia azpimarratu nahi genuke, bukatzeko.

## 2. Gertaerak eta giroa

Kontaketa antolatzerakoan, garrantzi berezia eman nahi izan diogu krono-logiari. Ordea, tarteka, giroa azalduko dugu, horrek ulertarazten baitizkigu gertaeren uhinak.

Espazioa, berriz, guztiz erabakigarria izan zen. Lehenik eta behin, gunea ezin daiteke zatitu edo mugaz bereiz. Bakarra zen: Altzate, Urtubia, Ainhoa, Urdazubi, Zugarramurdi. Iparralderantz Donibane-Lohitzunera eta Uztaritzera hedatu zen; he-goalderantz, aldiz, Baztan-Bidasoa eskualdea ukitu zuen eta urrunago ere joan zen.

Ez gaitezen eror garaikideek erabili zuten trikimailu hartan. Erakundeen zentralizazio-prozesuek Bordelera eta Logroñora eraman zituzten hurrengo mailako epaitegiak: hirietara. Hirikoek ez zuten gertakarien lekua ezagutzen eta mesfidantza-puntu bat zuten.

Egiaztapen batetik abiatuko gara: sorgintzaren sinesmenak errealitate luzea zuen denboran eta bizirik zegoen, eguneroko gauza ulertezinak azaltzeko balio bide baitzuen. Edozein zoritxar malapartaturen motiboa zirudien. Hau, hori edo hura gertatzeko, honek edo hark sorginduko zuen... edo antzeko zerbeit, alegia. Bana-banakoa izan ohi zen.

XV. mendean, aldiz, giroa aldatu egin zen. Europatik zetorren moda berriak sorginkeria nahiago zuen, sorgintzaren ordez —Henningsenek «brujería y brujomanía» bereizi zituen—. Aurreiritziz, sorginkeriak antolatua izan behar zuen: heretikoen, juduen edo nekazarien matxinada milenarista gisako zerbeit izan behar zuen. Geroago *best-seller* izan zen batek, 1486ko *Malleus maleficarum* izenekoak (Goñi Gaztanbide, 1971; Cohn, 1975-87; Levack, 1987-95; Muchembled, 1993) irudikatu zuen eredia: Deabrua gurtzeko meza beltzak ospatzen zituen sekta batek besteen desgrazia bilatzen zuen. *Sabat* deituriko bileretan elkartzen ziren Txerrenaren aginduak jasotzeko, eta orgia egiteko bidenabar. Landako eginkizuna zen, gehienetan, hiriko letradunaren ikuspuntuaren isla balitz bezala. Hala ere, irudiak sortzean goi-mailakoen janzkerak eta formak azaldu zituzten, esate baterako Guazzok 1609an plazaratu zituenak: *Compendium maleficarum*. Itxurak edo formak garrantzia irabazi ahala, jendetasun formala ikasteko eragozpenak zituen bordari edo herritar basari egokitu zitzaion mespretxuzko zokoratuaren patua.

Jendetasuna, *civilité*, Erasmoren *De civilitate morum puerilium* arrakastatsua; hori erabiliz, N. Elias-ek 1988ko lana plazaratu zuen, lan arras interesgarria. Berak mendebaldeko kontzientzia propioa antitesi batean adierazi zuen: kristautasun erromatar-latindarrari heresia, jentiltasuna edo paganismoa kontrajarri zitzaion, zeina nekazariekin edo baserritarrekin parekatu baitzuten.

Horiengandik, landatar baldarregandik alegia, edozein gauza espero zitekeen, XII. mendean Aymeric Picaud-ek euskaldun eta nafar dongeei buruz plazaratu zituenak adibidez (Bilbao, 1994). Edo, *Malleus* ospetsuan esaten ziren hainbat gauza. Beste anitz bezala, horrekin bat ez zetorren Andosillako Martin teologo nafarrak *De Superstitionibus* tratatua idatzi zuen 1510ean, eta bertan sorginen hegaldiak ukatzen zituen (Goñi Gaztanbide, 1971). Nafarroako gizartearen sineskeriei buruzko diagnostiko ona egin zuen. Bertan, sorginen eremua «in regione basconica ad septentrionalem partem montium Pireneorum» dugu. Hiria, beste hainbat sineskeria okerren alorra izateaz gain, landatik urruntzen ari zela pentsa daiteke. Iruñea hiri txikia zen, baina eragin kontinentalen bidegurutzea ere bazen. Are gehiago, hiriburua genuen Nafarroako erreinuaren giltza, 1512an, 1521ean eta gero.

1525ean, kutsu ideologiko eta politikoa zuten sorgin-epaiketa kolektiboak burutu zituen Nafarroako Errege Kontseiluak: Orreaga eta Luzaidetik Erronkariraino, eta Leringo Doneztebeko bailaran. Irizpidea muga dela dirudi, baina bertan plazaratzen dira betiko aurreiritzi, metodo eta ondorio guztiak: epailea etortzea, «apo-ikurra ikusten zuten begi-ikuskariak» erabiltzea, herri osoaren girotzea, tortura, salaketa, heriotza-zigorra... Desberdintasun nabarmenak daude Orreagatik ekialderakoan eta Leringo bailarakoan. Bigarren horretan hasi orduko,

Elizak bere eskuduntzen erreklamazioa egin zuen, frogak eskatu zituen eta, ondorioz, bertan behera utzi zen «(...) atendiendo que el procurador fiscal, parte demandante, no ha probado cosa alguna de lo que se ofrecio a probar (...)» (Idoate, 1978: 267). Beste hartan izugarriak burutu zituen Balanza jaun beaumontarrak.

Garrantzitsuena Idoatek argitaratutako dokumentuek islatzen duten giroa liteke: «jendeak aditu du», «susmoa du...» «honek edo beste horrek fama du...» baina tortura dela medio bilera kolektiboen aitormenak emanen dira gero, deus ezean gelditzeko bukaeran. Apoek, konjuruek edo araoek, orgiek, apostasiek, erailketek... tokia lortu dute. Irudi berri bat eraikiko da, eta Deabruak berak forma desberdinak hartuko ditu. Eszenatokia prest dugu. Bermatzen eta indartzen joanen da mendean zehar: 1539, 1569, 1575... Pirinioetan, Anotzibarren bertan, Ultzaman, Larraunen...

Zugarramurdikoaren hurbilena denboran eta ereduan, dena den, Araitzekoa dugu, ziurrenik. 1595ean, Fermin de Lodosa y Andueza jaunak bere "jauregi" propioan piztu zuen prozesu bat. Arriben bertan hartu zituen "aitorpenak". Sorgintzat hartuak Iruñera bidali zituen, eta hango ziegetan hil ziren zazpi edo bederatz. Guztia muntaia izan zela pentsarazten dute dokumentuek, haietan aitortzen baitute salatariek on Ferminen berak mehatxuez eta gezurrez agindu ziela guztia (Idoate, 1978: 367). Bizirik iraun zutenak, zigorradak hartu eta Nafarroatik erbeste-teratu zituzten. Geroago, on Fermin zigortzea ez dugu uste inoren burutik pasako zenik, maila gorena baitzuen: Nafarroako Erreinuaren Diruzainak (Ostolaza, 1999: 196) eta Arribeko behin-betiko Alkateak jatorri nabarmenegia zuen. Bere familiak laguntza eman zien gaztelau-gipuzkoarrei Nafarroaren anexioan, eta geroagoko saiakeretan. Beti Koroaren alde aritu zen, harrezkero. Araitzekoek, hala eta guztiz ere, antzinatik (1574) eta ondotik edo gibeletik (1618, 1620, 1628) aurre egin zieten on Ferminen, bere seme Pedoren eta iloba Josephen asmoei. Tirabira diruz konpondu zen, beste toki askotan eta garai berdintsuetan bezala. Herritarrek, 1630ean erosi zuten 500 dukatetan epai zibilerako gaitasun baxu eta ertaina. 1665ean, berriz, 300 eman zizkieten Koroari berriro ere, bere eskuduntzetatik utzi ez zezan epai kriminalarena (Mikelarena, 1989: 70-71). Alde hartatik, bederen, Anduezarrek bataila galdu zuten: ez zuten herrikoak epaitzeko boterea eskuratu.

Gertaera horren aparteko interesa motibazioan datza. Jauntxoak sarraskia antolatzeko gauza ziren, errukirik gabe, aurre egiten ziren herria ikartzeko. Erabili duten baliabide anitzen artean beste bat da sorginkeria: elizan, ohorea eta lehen-tasuna lortzen saiatuko diren Anduezarrok eta alkatetza, berriz, hereditarioa bihurtu nahi izan zuten. Arruntak baino gehiago izan beharra zutela dirudi... Sorgin-prozesuko testigantzek, aldiz, herriko jendearentzat "kaparetasun" mitikoa benetako zerbitu zela erakusten dute:

Y todos los hijos naturales del dicho lugar de Ynça (Araizko Intza), an estado y estan en la dicha fama, opinion y reputacion de hombres hijosdalgo, por privilegio particular que tienen de los señores reyes (Idoate, 1978: 368).

Bitxia dirudi Nafarroako Erreinuaren Diruzainak erabili zuen trikimailua 1525.ekoan erabili zen berbera izatea: sorginen begietan apoaren ikurra ikus zezakeen neskarena. Johana de Baraibar y Arangua, sorgin baten hamabi edo hamahiru urteko alaba zen. Larraundik Araitzera maiz joaten zen, arbi, artatxiki edo ardo

eske, eta bertan sorgin-izurritea zegoela azaltzeko kargua eman zion on Ferminek.

Zugarramurdikoa piztu zuen neskak ere, aldameneko herrietan izan zuen ikasbidea. Lapurdin Pierre de Lancrek bideratuko zuena ezagutu zuen eta 1605-1608koa jasan zuen Ziburun, han bizi baitzen (Henningsen, 1978: 187). Orduan gertatu zirenen artean pasarte ezagunenetarikoak dira aurkari aritu ziren klanen arteko gogorkeriak eta sorginkeria-salaketak. Urtubiakoek zuzendu zuten taldea Lapurdiko “baillie” edo kapitaina hiltzen saiatu zen 1607ko uztailaren 25ean (Goyhenetche, 1979; 259-264; Madariaga, 1994: 167-169). Hangoa ezagutu eta Zugarramurdira zerbitzari etorri zen neska Maria de Ximildegui izan zen.

Araitzeko jazoera horrek beste argi bat piztu zuela pentsa daiteke. Ordura arte, *ayuntamiento* edo *sabbat* gisa izendatzen ziren sorgin-elkarketak. Han, *Aquerlarrea* izeneko batean egin omen ziren (Idoate, 1978):

(...) que la endrecedera llamada Aquerlarrea. Esta junto a San Miguel de Celssi, como lo dize en su primera deposicion, (...) las veces que a llegado en el dicho campo, lo a oydo decir assi (...) (355).

(...) que lo lleuaron la primera vez a dicho Campo de Aquerlarrea (...) (357).

Harrezkeroztik, toponimo honek —“endrecedera” hitzak mugapea edo norabait daraman bidea esan nahi zuen Espasaren arabera— sorgin-bileraren esanahia hartu zuela dakigu. Azurmendik (1995) beste aukera bat aurkeztu izan du, Fermin Irigaraik 1922an proposaturikoa: Zugarramurdiko Alkelarrearena edota Alkerdiarena, hain zuzen ere. Elgorriagako eremuan Akerlurra toponimoa ezagutzen da, Akerreta Nafarroako herri baten izena dugu eta Akerregi Hernaniko auzo bat da; akerrak eta ahuntzak etxeetako abere arruntak ziren.

Lancre-k hiruzpalau aldiz bakarrik erabili zuen: «lane du Bouc, lane de Aquelarrre, que significa lane del macho cabrío» (Caro Baroja, 1980: 175). Identifikazio horrek, bidenabar, Deabruaren irudia definitzen lagundu du. Garai batean hainbeste forma eta itxura hartzen zituen bera, gizon beltza eta akerra izan zen gero, eta soilik akerra geroago. Zugarramurdikoa deitzen dugun horretan, esate baterako, biak mantendu ziren. *Aquerlarreak*, aldiz, eta kostata bada ere, irudi bakarraren zama eskuratu du.

1609-1610.eko sorgin-ehizak eragile ezagunak izan zituen: sorginen arazoa zela eta, Altzate eta Urtubiako Tristanek (mugaren bi aldeetako jauntxo honek Hendaiaitik Uztaritzera eta Berara hedatzen zuen bere eragina), D'Amou (Damou) jaunarekin bat eginik, Frantziako erregearengana jo zuen, laguntza eske (Caro Baroja, 1980: 161), “bailliearen” aferatik bi urte zirela. Bordelen zazpi bat hilabete behar izan zituzten azkenean bi epaile lau hilabetez bidaltzeko —1609ko uztailetik azarora—. Pierre de Lancrek izan zuen sorginkeria-aferearen ardura; D'Espagnet deiturakoak, berriz, mugako arazoez izan zuen kezka handiena. Hauek Lapurdira ailegatu orduko, Urdazubi-Zugarramurdiko auzia hasia zen: 1609.eko urtarrilean bidali zuten Logroñora sorgin-talde bat; abuztuan joan zen Urdazubiko monasteriora Valle Alvarado inkisidorea, eta apezpikuei egiten zitzaien harreraz hartu zutela dio lekuko batek. Irailean, bertan zen oraindik. Orduan jaso zuen D'Espagnetek eta Urtubiako Tristanek bidalitako txostena: «siete procesillos

de actos comprobados de las cosas que han confesado estos brujos» izenburuko bat (Henningsen, 1983: 129), hain zuzen ere. Horren guztiaren ondorioz, Urdazubitik beste hamalau lagunek osatutako talde berria bidali zuten Logroñora; eta San Salvadorreko monasterioa zuzentzen zuen Leon de Aranibar abadeak Inkisizioko kargua eskatu zuen. Muga zeharkatzen zuten mando-ilarek sar zitzaieten liburu heretikoak zelatzeko omen zen (Idoate, 1981: 210). Eskuratu zuen.

Monasterioko eremuko bideraturik edo, Valle Alvarado inkisidoreak Bera aldera jo zuen. Hango eliza Altzateko familiaren patronatukoa baitzen, Lorenzo Hualdek egin zion harrera bertan. Altzate-Urtubiakoek hautatzen zituzten elizako apaizak, eta herritarrek ordaintzen zituzten “hamarrenetik” ematen zieten “soldata” apaizei; gainerakoa, patronatuarentzat gelditzen zen, jauntxoentzat alegia. Hainbat herritarrek ez zuten batere maite Hualde, “frantsa” eta Altzate-Urtubiako mendekoa omen zelako.

Indar guztiak dantzan ziren. Hualdek, udan, interprete-lanak egin zituen Lancrek Lapurdin egindako galdeketetan. Haietatik sortuko zen azken honek bere lan ospetsuan (*Tableau de l'inconstance de mauvais anges et démons*) aldarrikatu zuen eredu ikusgarria: sorginduek ospatzen zuten meza beltza. Bertan, erabiltzen omen zituzten bi lelo hauek aurkeztu zituen, zeintzuk interpretearen lana neurtzeko balio baitezakete.

Batek dio:

In nomine Patrica, Aragueaco  
Petrica, Agora, Agora Valentia  
Jouanda goure gaitz goustia.

“Sorginduek” ezkerrekin Aitaren egiterakoan esaten zituzten hitz horiek guztiz iraingarritzat zituen Lancrek, batez ere, hain toki txikian hiru hizkuntza nahasten zirelako: latina, gaztelania eta euskara.

Hiru. Hots: Hirutasun edo Trinitateari egiten zioten irri!

Bigarren leloak dio:

In nomine Patrica, Aragueaco, Petrica,  
Gastellaco Joanicot, equidac ipordian pot.

«Aquer-larretan» ere ibiltzen omen zuten; «Joanicot» deitzen zuten sorginek Jainkoa. Hau da, Guztiz Ahaltuari hitanoz eskatzen zioten musua, ipurdian. Horrela sinetsarazi zioten Pierre de Lancre letratuari.

Lelo hauen gainean, Caro Barojak (1980: 217-218) honako hau dio:

(...) estos versos no tienen nada de esotérico y misterioso. Son fragmentos de canciones de una época en que Pedro de Aragón y Juan de Castilla estaban en lucha y parece que el que las ideó era más partidario del primero que del segundo. El problema es cómo a algunos de los desgraciados acusados o testigos se les ocurrió citarlas en el atestado y cómo el intérprete o quien fuera llegó a vencer a Lancre de que el nombre de «Jannicot» era el que los brujos daban a Dios.

«Joanicot» beste behin agertuko da Jainkoaren izengoitizat. 1611ko apirilaren 15ean, Iruritan, Leon de Aranibar eta Miguel de Narvartek jaso zuten 40 urteko María de Iturregia eta bere hamar urteko Martin semearen ahotik. Ama eta semearen pasarteek, Deabruak zein dotrina irakasten duen erakusten dute: Deabrua bera da benetako Jainkoa; infernurik ez dago... Bitxia gertatzen da 10 urteko mutiko horrek duen hizkuntz aberastasuna, horrela esan omen baitzuen:

Y creyendole que es Dios, ha visto este de como todos los bruxos y bruxas se le ponen de rodillas y rezan por el y le veneran y le honran y le adoran en la parte posterior como a su Dios, que le tienen por tal (...) (Idoate, 1978: 380-381).

Haur horrekin hizkuntzalari fina galdu genuen, antza denez. Urte hartako maiatzaren 29an aldarrikatu zen “Barkamen Ediktua”, ehizaren emaitzak zalantzan jartzen zuen hura. Ondotik, Mariak dena ukatu zuen.

Utz dezagun hau momentuz, 1609ko uda-udazkeneko Berara itzultzeko.

Inkisidore jauna jakinaren gainean paratu zuen Hualdek. Eremua, sorginez eta sorginkeriez beteta zegoela sinesten zutenetakoa omen zen Hualde. Hori egia zela frogatzeko, bildu zituen gauero, bere etxean, herriko haur guztiak (berrogei baino gehiago): sorginengandik babesteko, zekitena konta zezaten..., sala zezaten, alegia. Horretan ere, herritar batzuen onarpen eza jasan behar izan zuen, baina laguntzeko prest omen zegoen, komisario izendatzen ez bazuten ere (Henningsen, 1983: 140).

Hualdek inkisizioko kargua ez zuen lortu, Lesakan beste bat baitzegoen. San Paul deitura zuen hau ere herriarekin istiluetan aritua zen, bere kargu eliztarrak “herentziaz” utzi nahi baitzizkion iloba apaiz bati. Azken horrek Inkisizioko notario lanbidea lortu zuen, orduan bertan.

Valle inkisidoreak bere “bisita” jarraitu zuen Gipuzkoa alderantz. Handik zetorren gotzaina —Iruñeko elizbarrutiak 1567ean lortu zuen Baztan-Bidasoako hedapena eta Bidasoatik Debarainoko Gipuzkoa aspalditik gidatzen zuen—, Antonio Venegas de Figueroa, ez zen berarekin elkartu. Are gehiago, apezpiku horrek zeharo desberdin ikusten zituen aferak (Henningsen, 1983: 133).

Lapurdin, 1609. urtean, zenbait exekuzio erabaki ziren. Azkaineko Argibel apaizarena, esate baterako, herrian bertan egin zen, “adibide on bezala”. Akizeko gotzainak —Baionakoa kanpoan zelako—, gauzatu zuen izugarri jantziko zuen eszena: degradazioaren errituala (Caro Baroja, 1980: 212-213). Horretaz kexatu zen Iruñeko apezpikua: bortziritar batzuek hangoa ikusi eta hedatu dutelako, hemen —zehazki Bortzirietan—, sorgintza, txutxu-mutxua izatetik sorginkeria bihurtu omen da (Henningsen, 1983: 133). Bultzatzaileek garaipena lortu zuten, baina kanpoan zen Baionako gotzain horrek, Bertrand Etzauz jaunak (Echaus jarri zuen Axularrek *Gero*-ko gomendiozko kartan), baretu zuen Lapurdin De Lancrek eta lagunek piztu zutena. Auzia mugaren bi aldeetan saltoka ibili zen. Bakarra zen.

Logroñon, aferak aurrera jarraitu zuen. 1610eko azaroaren 7an egin zen fede-auto orokorra. Ondorio nabarmenak lortu zituen:

Primeramente, es cosa asentada y aberiguada por este Santo Tribunal, que ay brujos y brujas, y que seta y eregia destos es renegar de Jesu-Xpo y su Sancta Fe, y de la Santisima Trinidad y de los sanctos sacramentos, y de la Virgen Maria, porque son ereges, apostatas, ydolatras, domatizadoras, fautoras, defensoras encubridoras, homicidas, sacrilegas, fornicarias, nefandas, sodomitas, adulteras, echiceras, encantadoras, blasfemas.

Lo segundo, que las brujas mas principales y las maestras, suelen untar a los niños de poca edad con el unguento que despues se dira, y los llevan por el ayre a los campos llamados aquerlarrea (...) (Idoate, 1978: 373).

Bitxia suerta daiteke genero-aldaketa: «brujos y brujas» zirenak soilik fememinoak bihurtzea, emaztekiak; soroak izatea akerlarreak, ez “bestak” eta «Santo Tribunal» horretan izan ziren ezadostasunak inon ez agertzea: Maria de Arbururen kasuan, adibidez, Salazar y Frías inkisidoreak boto partikularra eman zuen, eta horrelakorik ez da nabarmentzen. Are gehiago, handik urte batzuetara, Salazarrek berak bere burua eta epaimahai osoa kritikatu zituen hitz hauekin:

reduciéndonos nosotros mismos a escribir sola y sucintamente para llevar mayor consonancia de hacerlos culpados y delincuentes. (...) no escribíamos enteramente en los procesos circunstancias graves (...) (Caro Baroja, 1980: 275).

Erabakigarria izan zen 1611. urtea. Urtarrilean bidali zuen Urdazubiko abadeak, Aranibarrek, eskutitz-txosten bat, eta baita Hernando de Golarte izeneko jesuitak ere, Baztan-Bidasoako herrietan eginiko torturak salatzeke Bilbotik igorri zuena. Jarrera arras kontrajarrikoak dira biak. Gutunek harrera desberdina jaso zuten.

Golartek dio bere eskutitzak lehenagotik bidalitakoen —«por via de Pamplona»— errepikapen gisako zerbait direla, nonbait, besteak galdu direlako (A.H.N., Inquisición 1679, 2, 4-(II)). Horrez gain, folioen ertzetan, atentzioa deitzeko moduko oharrak ageri dira: «Ojo», «es falso», esate baterako. Ez dira Golartek eginak, noski. Hori gutxi balitz, inkisidoreek —Logroñoeko hirurak?— eginiko hamar orrialdeko txosten-erantzun baten “laguntza” izan zuen bidaiari (A.H.N., Inquisición, 1679, 2, 15- (I)). Txostenak, guztiz argigarriak direlako, geroxeago aztertuko ditugu. Orain, beste hau azaltzea merezi du; inkisidore jaunen txosteneko seigarren eta zazpigarren orrialdeetan Urdazubiko abadeak bidalitako eskutitzak aipatuko dira, honela:

Y lo q. en la ultima carta refiere el Religioso (Golarte) de los alborotos y tormentos q. diron a las brujas y muerte de una dellas mas en particular nos ha constado en el tribunal y con mas verdadera Relacion por las cartas del Abad de Urdax q. con la dicha carta de 8. deste Remitimos a Vs. dando quenta de todo. Y los tormentos del agua fria q. refiere se dieron a las brujas para q. confesassen (...).

Y assi tenemos por muy cierto q. son exageraciones fuera de toda verdad e ynvenciones del Dem<sup>o</sup> y que la verdad de todo se contiene en la carta de Abad de Urdax q. por la gran satisfacion q. el tribunal tiene del q. de sus letras y virtud tenemos por muy cierto nos escrivio con grande puntualidad la verdad de lo que pasa (...).



Laburbilduz: Aranibarrek idatzitako karta, agian, galdurikoetan Golartek salatutakoari erantzuteko prestatu zen. Hala eta guztiz ere, Logroñotik aurrea hartu zion Aranibarrek. Jesuitarena oharren eta txostenaren “laguntza” jaso ondoren igorri zuten 1610.eko otsailaren 14an. Antolatua balitz, jokaera estrategikotzat hartuko genuke.

Hiru dokumentuak elkarren segidan aipatuko dira, baina alderantziz emanak: Logroñoko inkisidoreek sinatu zuten txostenaren laburpena (I) hasieran; Golarte jesuitak berridatzi zituenak (II) gero; eta bukatzeko Leon de Aranibar fraideak osatu zuen hura (III).

Logroñoko inkisidoreen txostenaren helburuak nabarmenak dira: inkisidoreak —hiruek sinatu zuten— ez zetozen bat jesuitaren ikuspegiarekin. Lehenik eta behin, inkisidoreek ez zekiten Golartek Bortzirietara joateko asmoa zuenik; izan ere, ez Golartek, ez Golarte bidaliko zuen Iruñeko gotzainak, nahiz eta azken honek jesulaguna bidaltzean Logroñoko inkisidoreen eginkizun-eskubidea urratu, ez zituzten jakinaren gainean jarri. Prozedura alde batera utzirik, hala ere, txostenaren lorpenak aztertu behar dira; deabruak, ohikoa duen moduan, iritzi-huskerien eremura eraman nahi izan zituen sektaren gaiztakeriak, konponketa baztertzeko asmoarekin. Etxalarko apaizen ustezko haragi-bekatuez baliaturik —luze arituko ziren horretaz eta Maria de Endara sorgin alargunak izan zuen semearen aitatzat hartu zuten Labayen lizentziatua—, inguruko apaizen aurka eta Iruñeko apaizpikuaren beraren motiboak lohitzera ausartu ziren, behin eta berriro. Hiru inkisidoreen aburuz Golartek, berriz, argi eta garbi erakutsi omen zuen gazte harroputza izateaz gain, gauzak bide onetik ateratzeko intentzioarekin aritu zela eta idatzi zuela. Irtenbidea lortzeko, bertara joan eta «desapasionadamente» arituko zen epaile baten beharra ikusten zuten.

Zerk piztu zuen Logroñoko inkisidoreen haserrea? Hitz gutxitan, aitorenak lortzeko erabili ziren moduak hizpide zituen Jesusen konpainiako Golartek (II); Bortzirietan, kontraesanez beteriko testigantzak aurkitu zituen, mehatxupean eta bortxaz lortuak batez ere. Torturaz gauzaturiko heriotzak salatu zituen, haurren erabilpena arbuatu eta, azken finean, sen oneko neurrien desagerpenak kezkatzen zuela zioen. Zenbakietan jarri zuen indarra: populazioaren erdiak edota bi herenek nolabaiteko akusazioa jasan zutela zioenean, auziaren eromena nabarmen utzi nahi zuen. Hori bakarrik ez, akusazioen faltsukeria-gakoa herritarren arteko ezin-ikusian jarri zuen.

Henningsenek (1978: 183) giro beraren isla agertu zuen. Urdazubi eta Zugarramurdiko guneaz ari zela, bertako populazioaren bosten batek salaketa jasan zuela azaldu zuen.

Logroñoko Inkisiziotik 1611ko martxoaren zazpian bidali zen txosten bati honako goiburua jarri zion Idoatek: «Lugares de aquelarre en Navarra y otras provincias, con número de reos confitentes y personas testificadas, con un total de 319 y 1.640, respectivamente». Dagoeneko aitortu zuten 319 lagunetatik, 267 ziren Baztan-Bidasoako eskualdekoak. “Aipatuak”, beste 1.212 lagun ziren. Hau da, populazioaren ehuneko hamaikak zuen nolabaiteko zerikusia, gutxi gorabehera (Mikelarena, 1991). Hori bai, gunetik zenbat eta hurbilago, orduan eta gehiago ziren, zurrumbilo batean bageunde bezala. Dokumentuan (I), “aquelarre” idatzi

zuten; hiru bat hilabete behar izan zuen hitzak moldaketa ofiziala burutzeko, Logroñoko fede-autoan “aquerlarrea” idatzi baitzen.

Aranibarko Leon fraidea, Urdazubiko San Salvadorreko abadea eta Inkisizioko “comissario” ere bazen hura, lanez lepo zegoen 1611ko urtarrilaren 29an. Hala eta guztiz ere, txosten eredugarria egin zuen (A.H.N., Inquisición, 1679, 1 (III)).

Ustez erantzun gisa prestatu zen Aranibarren izkribuak sei orrialde ditu. Urtarrilaren zortzian agindu zitzaion “diligencia”-ren bat bete nahian hurbildu omen zen frai Leon Doneztebera: bi emakume Logroñora bidali behar zituen eta herriko erretorearen “genealogia” edo jarrera ikertu. Hau da, helburu nabarmenetan ez zen Golartek salatutakoa zuritu beharra aipatzen.

Emakume biak bidali zituen, inguruko herrien haserreareagotuz, bertan sorgin gehiago eta kaltegarriagoak gelditzen zirelako: «cada noche lleuan las creaturas a los *aquerlarres*». Ondorioz, herritarrek euren kabuz ari dira ustezko sorginak preso hartzen, inoren agindurik gabe («sin orden»). Gure Aranibar ardura eskatzera joan zenean, modu txarrean erantzun omen zioten; jarrera horrekin deus ere ez zutela konponduko esan zienean, herritarrek, sorginek haurrak gauetz “akerlarreetara” eramaten jarraitzen zutela sinestuta, honako bi zatiko erantzuna eman ziotela esan zuen: sorginek merezi zuten sufrikarioa zutela, eta ziegetan ziren bitartean ezin zutela haur gehiago sorgindu. Aranibarrek ezin omen zuen deus ere egin; maiz etxetik ez ateratzeko gogoa izaten zuela dio, herritarren kexu, dolu eta negarrak ez aditzeagatik. Jendeak uste omen zuen berak zuen autoritatea eta jurisdikzioa zena baino handiagoa zela, eta bertan ariko zen inkisidore baten beharra azpimarratzen zuen.

Hurrenez hurren, salto bat eginez «de los bruxos del lugar de Arrayoz» aritu zen, «donde entre otras la mas testificada por bruja y la q. a lleuado mas niños, es graciana de barrenechea la mas perfida y pertinaz q. e visto en mi vida» —dokumentuaren zati handi xamarren transkripzioak merezi du, antolakuntza eta solas moduak bereziak baitira—. Grazianak aitortu omen zuen behin batean, eta bere ahizpa bati —Catalin de Vnidearena— eta biloba bati, —«chipittoa» izenekoa— aitorrarazi omen zien. Handik hiruzpalau egunera guztia ukatu zuen. Arraiozko haurren gurasoek, orduan,

la prendieron sin orden y la ataron en una casa a un poste por los braços exhortandola q. confessasse la verdad y no hubo remedio con ella. Dexaron la sola en la forma q. digo y acabo de un quarto de hora q. bolvieron a reconocerla la hallaron sin sentido y la soltaron por muerta y despacharon un hombre para sauer de mi si la enterrarian en sagrado por q. muchos dellos la querian hechar al rio. En este medio hombres y mujeres q. con candelas encendidas estaua en guardia della vieron q. lasusodicha abrio los ojos y començo a mirar a todos los circunstantes y esto seria acabo de media hora despues q. la dexaron por muerta. Luego lleo la griteria delas mujeres a q. dixesse el bendito nombre de Jesus, pero nunca dixo sino. mu. Y aunq. la querian dar una candela bendita en las manos no la abrio para asir della y juzgan q. muy bien pudiera. Finalmente ella expiro luego y estando en la agonía, una muchacha confitente q. estaua p.n.te dio gritos diziendo q. veyá un hombre negro junto a ella lo q. no veyá otro ninguno de los q. alli estauan y por la informacion consta lo q. los bruxos hazen en su sepultura dende ella esta enterrada.

Ibargoiaranen (Donamaria, Gaztelu), Oronozen, Legasan... herri hauetan guztietan azterketa zehatza egiten ari zela dirudi, momentuz aurkikuntza gutxi izan bazituen ere —«poco se descubre», idatzi zuen—. Elizondokoa, berriz, «va muy bueno con testificaciones y confesiones». Itxaropentsu zegoen:

espero se descubrirá mucho dentro pocos días. No ay rincón donde no aya mucho en que entender Y parece imposible poderse acabar esto en mil años.

Haur anitzen lekukotasunik ez zuen jaso, jendetza baitzegoen, eta gero ere beti aukera izanen zuelakoan. Kexu zen, hala ere, zetorkion jendea damurik gabe hel-tzen zitzaielako, «por cumplir con la justicia temporal y por miedo della». Giro horren ondorioz, bere iritziz, «luego vuelven a sus maldades y no dicen la mitad de lo q. sauen».

En Eliçondo a suscedido los días passados otra muerte desastrada de una vieja famosissima bruxa q. llebava los niños del lugar. Hizieronse con ella todas las dilig.as posibles para q. lo confessasse y siempre anduuu varia, un día confessava algo y otro día lo negava todo y no auia remedio de confessar ningun complice i en este estado murio la desventurada y hallandose p.n.te a su muerte una muchacha confitente dixo q. veyá aun cabron q. mordia por las quixadas a la susodicha.

«Tambien va lo poco q. se a hecho en Legassa», aipatuz jarraitu zuen, zenbait gurasok emakume batzuk preso hartu zituztela «de hecho» edo agindurik gabe izan zela azalduz, eta baita zepoan zuten bat harrika eman zutela «y esta muy mala».

Erratzun, sorginek neskato bat ito zuten; gorpua xehatua agertu zen. Hiruz-palau emakume, «delas q. los niños dicen q. los lleuan a los *aquerlarres*», ziegetan zeuden; «los pueblos se van alborotando y yo no se que remedio se tenga esto».

Ondoren, salto bat eginez, hurbileko gertaeretatik urrundu eta Bordeleko epai-leen jokaerak kritikatu zituen. Aurreko urteko giroa nahiago zuen:

Los jueces del parlamento de Burdeos q. este años les a cabido ser del crimen proceden en lo de los bruxos por un extremo muy grande en respecto delos jueces del año passado, porq. como no aya actos positivos y exteriores no les hazen cargo ni admitten testificaciones y han dado libertad a muchos delos q. antes estauan presos. Hade causar esto mucho mal en esta tierra de francia.

Ez omen zuen ulertzen hogei eta gehiago urtez «aquerlarres»-etan aritu zirenek euren kideak ez zituztela ezagutzen esatea. Abadea kezkatzen zuen euren izaera aitortu ez zuten hainbat sorginen jarrerak; ez zekien zer gertatzen ahal zen sorgin horiek Bazkotan jaunartzera joanez gero herri guztiaren aitzinean. «Kalitatezko» pertsonen arazoaz aritu zen gero —jauntxoenez alegia—, horiek jendaurrean lotsa ez pasatzeagatik euren ez zutela aitortzen esanez. Bere burua proposatzen zuen isilean konpontzeko, hala moduko tratu berezi batekin.

Hau idazten ari zela, Elizondon bertan iskanbiletan omen ziren. Emakume bat hartu zuten preso eta berak, abadeak, ez zuen deus ere egin, modu horretan jendea lasaitzen delako, «y no sepuede creer lo q. passa sino es viendolo con los ojos».

Tambien envio a V.S<sup>a</sup> en este pliego la informacion de la geneal.a vida y costumbres del dicho Rector q. es muy honrado y de muchas partes p.a servir a V.S<sup>a</sup> en off.o de comiss. G.e Dios a V.S<sup>a</sup> muchos años en el acrecem.to de todo bien q. V.S<sup>a</sup> merece y yo capellan y siervo de V.S<sup>a</sup> deseo.

Izkribuak orekatua dirudi; hainbat gehiegikeria bortitz aitortzen ditu, bidegabekeriak beharbada, baina herrietako giroan ulertu behar direnak, alegia. Izurriteak zuen tamainako erantzuna ematen zuen herriak, berez, ez baitzitekeen utz sorginek egiten zutena erreparatu gabe. Prozedura legalak, berriz, motelak izateaz gain, aldakorak izatera ailega zitezkeen, Bordelen gertatutakoaren antzera.

Beren eginkizunen ondorioz agertu ziren martxoko hasierako estatistiketan agertzen ez ziren zenbait sorgin-gune baztandar —Almandoz, Elizondo, Elbete, Erratzu, Irurita eta Lekarozkoak—, batzuk Urdazubiko monasterioaren patronatuari lotuak.

Eta ia-ia bat-batean, 1611ko martxoaren 18an, Aranibarrek errieta eman zien Oronozko zinegotziei (“jurado”-ei) egin zituzten gehiegikeriengatik. Torturak agertzen ditu, agiri honetan eta ondorengoetan, eta dokumentuan bertan azaltzen du jokamodu gogor hori «contra la recta administracion de justicia y estilo suave que los señores inquisidores tienen en el procedimiento de las causas» doala (Idoate, 1978: 379-380).

Salazar y Frías etorri zen eskualderantz, berari egokitu baitzitzaion begiralearen papera, beste bi inkisidoreen haserrerako; eromenaren garai gorenek eurena egin zuten. Orduan hasi ziren justizia zibila eta eklesiatikoa esku-hartzen: Arraiozen eta Elgorriagan, zinegotzien aurkako epaiketek hauek zigortzea erabaki zuten. Erratzun apaiza salatu zuten. Aranibar abadea dugu, argi eta garbi, agintari gisa testifikatua Elgorriagan eta Arraiozen. Erratzun ez da hain garbi ageri.

Arraiozko prozesurako bildu ziren testigantzak aztertuko ditugu orain. 1612an hasi ziren informazioak biltzen; azaroaren 20an eman zen epaia. 1613ko urtarrilaren 14an onartu zuen Aranibarrek bere aginduetara egin zirela “gehiégikeriak”.

### 3. Herri-eromen baten atarian

Arraioz, 1610-1613. Berrogeita bat etxe zituen herriak; horietatik bi hutsik zeuden, hiru ziren “jauregiak”, beste hogeita bederatzi “vecino”-enak ziren —kaparetasunak zekarren kalifikazioa— eta falta diren zazpiak “habitante” soilenak ziren, “vecino”-ek baino ahalmen eta eskubide gutxiago zuen estamentukoak, alegia. Bereizketa juridiko honek ez du lekurik *auzotar* edo *auzokide* euskal hitzen artean, gure ustez; horregatik *bizilagun* eta *biztanle* terminoak erabiliko ditugu *vecino* eta *habitante* izendatzeko.

1607. urtean, jabe bakoitza bere ondasunak —«Vienes Rayzes y muebles»— aitortzera beharturik egon zen; horretarako, ondasunen “apeo” edo kontaketa egiten zen, eta kontaketa emaitza zinpeko aitormenen bidez ziurtatu behar zen (A.G.N., Valoración de la riqueza del Reino, 1607-1628). Arraiozko hamalau etxe handiak “lurdunak” ziren, eta hamazazpi “lurgabeak”. Lurdunen artean alde galantak zeuden; bi gizalurreko baratzea zutela zioen jabe batek (gizalur bakoitzak 469 m<sup>2</sup> ditu), eta lur gutxien zuenak hiru “quartelada” aitortu zituen, hirurehun metro koadro pasa. Jabe handienak, berriz, ehun eta hogeitaz gisalur eta beste hogeita sei erregu-lur (898 m<sup>2</sup>) aitortu zituen: Doña Catalina de Yturbidek. Jauregiçarreko alarguna bi hektarea baino gehiago zituen lurjabe bakarra zen. Beste

bost zeuden bat eta bi hektarea artean zituztenak, eta hektarea bat baino gutxiago zutenak beste zortzi lagun. Hamalau ziren, guztira.

Etxeak identifika daitezke (planoa ikusi hurrengo orrialdean), bost izan ezik, eta apeoaren arabera, egungo Arraioz osatzen duten bi auzoek —ibaiak bereizten ditu Mardea eta Urrutia— osaketa sozioekonomiko zeharo ezberdindua zuten garai hartan. Mardean Jauregiçarra (2), Echeberria (5), Miquelaberro (1) eta Çubiria (3) ziren lurdunak; beste hamalauak lur gabeko bizilagunenak dira. Urrutian, aldiz, lurdun ertain eta txikiak pilatzen ziren: Eliçalde (24), Gortari (26), Aldeco (33-34), Michelena (29), Yndartea (31), Garaicoechea (30), Perochene (26), Sarratea (32)... eta elizatik hurbil zegoen jauregia (22). Miguel de Narbarte errege-eskribauarena zen.


Lurra, izugarri garrantzitsua eta desiratua izanda ere, ez zen aberastasun bakarra. Herri-lurrak zeuden, eta haiek eman ziezazkieketen arraioztarrei ustiatzeko aukera klasikoak: burdingintzan, Urdazubiko monasterioko eta Baztango “Bakeolak”; abeltzaintzan, San Salbatoreren eta bizilagunen bordak; ikatz-lantegiak; azienda-bazka; mantenua, zura eta abar.

Arestian aipatutako “apeo” hartan agertu behar baitzuten, ezagut daiteke zerga ordaintzen zuten azienden banaketa. Baztango zerriak bazkatzeagatik garai batean ordaintzen zuten eyurdea kentzea lortua zuten jada baztandarrek, baina beste abere arruntak, txikiak izan ezik, zergadunak izaten ziren. Hara hemen Arraiozkoa. Hamaika lurdunek ondokoa aitortu zuten: 102 behi, 3 idi, 379 ardi, 40 ahuntz, 17 behor; hogeita bi lurgabeek, berriz: 91 behi, 4 idi, 419 ardi, 22 ahuntz, 10 behor (lurgabeen artean sartu ditut hiru lurjabe, arras lur gutxi zutelako; biztanle diren bi ere badaude).

Lurdunek behi eta zaldi-behor gehiago zituzten ardiak baino, garai hartan ohi zen bezala (Aragón, 2001). Hala ere, abeltzaintza lurdun ertainen lana dela dirudi. Lurgabeen azienda-kopurua da harrigarriena; ardien parean ahuntz gutxi dira, baina akerraren irudia arrunta izanzen zela ondorioztatzeko nahikoa.

Guztiak ustiatu behar zituzten herri-lurrak; zeresanik ez lurgabeek. Herri-lurren ustiatzea gatazka ugariaren arrazoia izan zitekeen; izan zen, hobeki esanda, Alejandro Arizcunek (1988: 328-337) azaldu duen bezala, Baztango Ordenantzak aztertzean. Kontuan izan behar da, mende-aldaketako urteak gogorak izan zirela; besteak beste, neurri batean, ordura arte erabilitako ustiatze-sistemak bereak emanak zituelako, eta hamarkada batzuk beharko zituelako oraindik Baztanek artoaren bidetik abiatzeko. Krisialdiko urte luze horietan (1590-1640) gertatu ziren izurriteak, borroka ekonomikoak, jauregidunen aurkako jokaerak, herri-lurrekiko presioak, pribatizatze-jarrerak eta abar. Hain zuzen ere, kronologikoki sorginen auzia eta Arraiozko prozesua krisialdi honen erdian gertatu ziren.

Prozesua Nafarroako Artxibo Orokorrean da (A.G.N., Procesos, 1613, Arraioz). Orotara bi informazio-gune ditu: kexa egin zutenena (“quexantes”-ena) bata, eta salatuena (“disculpantes”-ena) bestea. 1612ko maiatzaren 21etik 30era arte bildu ziren “quexantes”-ek lortu zituzten hemeretzi testigantzak. Maiatzaren 30 hartan bertan hasi eta ekainaren 7ra arte egin ziren besteak, “disculpantes”-ek bildu zituzten hogeita biak. Hiru lekukoek informazio bietan hartu zuten parte. Beste sei ez ziren bertan bizi. Hala eta guztiz ere, 41 etxeko herri batean 31 testigantza anitz dira. Herria girotzeko adina bai, behinik behin.



Ezin izan ditut identifikatu:

Sanz  
Yrigoyen  
Unidearena  
Echebelz

Planoaren oinarria:

Vidal Pérez de Villareal.  
*Arráyo, un lugar del Baztán.*  
*Estudio etnográfico.*  
Cuadernos de Etnología y  
Etnografía de Navarra, 1990,  
56, 261-305.

Alde batean, bestean edo bi aldeetan familiartekoak ez ziren faltako, noski. Legez baztertuta gelditu baziren ere, sorginen ehizan hain erabakigarriak izan ziren haurrek (12 urteko muga) izugarritzko garrantzia izan zuten. Herrian ia inork ez zekien irakurtzen, idazten edo sinatzen, eta are gutxiago erdaraz. 34tik 3k bakarrik sinatu zuten: bi errege-eskribauak ziren, eta hirugarrena Gartzaingo hargin bat, nork harlauzetan agertzen zirenen tankerako sinadura egin zuen.

Bereziki aipatzen ez bada ere, prozesuan, ziur aski, eta ohiturak hala agintzen zuelako, funtzionario euskaldunek hartuko zuten parte. Bestalde, testigantza guztiek berrespena jaso zuten. Irailean, fiskalak behin-betikotzat eman zituen bere deliberamenduak eta berrespen-aldaketa egiteko hemeretzi aukera izan ziren. Azaroan kaleratu zuten epaia, eta alde biek alegatu zuten. 1613ko urtarrilaren 13an sinatu zuen Aranibarrek bere aitorten mugatuaren dokumentua. Otsailaren 9an bermatu eta laburtu zuten errudunen zigorra.

Zugarramurditik 1609ko urtarrilean Logroñora bidali zituzten haiek Arraioz bertatik edo hurbileko Irurita-Ziga... Almandoz-Belate bidetik joango ziren. Beraz, ordurako, Arraiozko jendea jakinaren gainean egonen zen. Neguak, etxekoia goa baldin bada ere, mendian lan batzuk agintzen ditu, basoan eta burdinoletan. Bestalde Arraiozko eliza, Baztango beste batzuk bezala, San Salvatoreko fraideen eskuetan zela kontuan izan beharko dugu; eta elizateak, garbitoki-bilerak eta errota daude. Sozializazio-guneak, alegia. Horietan guztietan izanen zuten Logroñora bidalitakoen berri arraioztarrek.

Horrez gain, hamar koitaduek osatzen zuten talde hartako Barrenetxetar ugariak (Henningsen, 1978: 190-191) beharbada senideak zituzten Arraiozko Mardea auzoan. Hogei bat urte zeramatzaten Arraiozko hauek “Barrenetxea (9)” izeneko etxetxo batean; lurrik ez zuten, bi behi eta berrogei ardi aitortu zituzten eta herri-lurrak erabiltzeko eskubidea zuten, etxea bizilagunena baitzen.

Aranibarrek aipatu zuen (III) Graziana de Barrenetxeari eta beste emakume batzuei erantsi zieten sorginkeriaren leloa. Batez ere “disculpantes” taldekoen alde agertu zirenek salatariak umeak edo haurrak izan zirela esan zuten. Hiru eta sei urte bitarteko haurrak izan ziren gehienak, hamar urteko pare bat, eta hemezortziko beste bat ere agertu zen, testigantza susmagarri batean.

Taldeek arras desberdinak dirudite: auzia berez sortu zela dirudi “disculpantes”-en testigantzetan; “quexantes” gehienek ez zekiten nola izan zen edo zergatik piztu zen auzia.

Grazianak eta bere lagunek betidanik sorgin-ospea zutela adierazi zuten “disculpantes”ek, familiaren sorgin-soka luzetik tiratuz:

que el padre de Sabadina de Çoçaya ataba y desataba y que era echicero y por Maria de Mendi viuda que era y es bruxa desde niña y tambien su madre y aguela y la misma fama tubieron la madre y tia y aguela de Catalina y Maria de Aldeco (...)

“Quexantes” taldekoek, aldiz, ospe onaren formula legala erabili zuten, aitormenetan: sorgintzat hartutako guztiak kristau onak ziren eta euren familiak ospe garbikoak ziren.

Haur salatarien adinari buruz ere, aipamenetan, “disculpantes” taldekoek hamar urtekoak nabarmendu zituzten; “quexantes” zirenek, berriz, hiru, lau eta sei urtekoen garrantzia azpimarratu zuten.

Eztabaida-testuinguru horretan izan ziren testigantzak, hala eta guztiz ere, zituzten ñabardurekin azaltzen saiatuko gara segidan, gure hipotesia argitzeko.

Garcia Miquela Berro-rena, esate baterako, interesgarria da (gaur egun, haren etxeari “Mikelorrea (1)” esaten zaio, eta garai hartan etxe ertain handienetakoa zen, lurrak, 29 behi eta 24 ardi aitortu baitzituen). 58 urte zituen lekuko honek bazterrak nahastu zituenik egon zela zioen: «sele gastto una çiçay(ñ)a». Errudun bat azaldu zuen: Miguel de Xuyto (egun Xuintonea/Xuntonea etxea (12) ezagutzen da, Mardea auzoan. Barrenetxea eta Zubiria jauregitik arrunt hurbil dago eta garai hartan lurgabea zen). Gartzia Xuyto berari aditu zion «(...) antes que fueran pressas (...)» eta «(...) en su propia puerta (...)» dirua zor ziola Sabadinaren senarra zenari. Orduan Zubiria (3) etxekoei zor zien, baina ez zegoen ordaintzeko prest. Sabadinaren suhiak —berarekin bizi zen Gaston de Osses, Beatriz de Çubiriarekin ezkonduak— eskatu zion. Xuytok nahiago omen zuen azienda saldu eta Logroñora jo justizia bila. Hangoek konpondu ezean, berak konponduko zuen afera etxean zuen arkabuza erabiliz. Hitz horiekin batera esaten omen zion orduan zuen bi urteko semeari: «semejantes palabras beamos niño como dança en el aquel Lar Tristan de Ursua marido de Sabadina de Çoçaya». Gartzia berak dioenez, «(...) le afeo lo mal que aquello parecia (...) porque los niños semejantes cossas bastan para que disfamen a unos y a otros vecinos y vecinas».

«Dueño y señor de la casa y palacio del dicho lugar de Çubiria (3): Don Tristant de Ursua» dugu. 1607ko apeoan bera kanpoan zelako izen berdineko seme batek (Tristant de Ursua mayor) Arraiozko bigarren lurdun aberatsenaren ondasunak aitortu zituen. Seme horrek idazten bazekien eta sinatu zuen. “Mayor” zela azaltzean, izen bereko “menor” bat ere bazela ondoriozta daiteke, hau da, Zubiriako bi semeek eta Beatriz de Çubiria bi alabek, hurrengo testigantzan azalduko den bezala, izen berbera zuten. Mendialdeko jauntxoaren praktika zen, garaian, etxalder-ideologiaren erakusle hau (Zabalza, 2000: 321). Jauregia alabentzat zela pentsa daiteke, deituren arabera. Ezkontza-politika zabaleko etxaldea dirudi.

Zubiriako Sabadina, Ursuaren alarguna, Çoçaya zen, agian Pedro Arrayoz de Çoçayaren alaba. Urte batzuk lehenago, 1584an ere, Baztango eta Urdazubiko monasterioaren arteko gatazka luzea konpondu nahian, “Sentencia Arbitraria” deitzen den bat aldarrikatu zen (B.U.A., Monasterio de Urdax, s. XVI-XIX). Ebazpen hura Miguel de Narvartek aldarrikatu zuen; monasterioaren aldetik, bere priorea, Leireko abadea eta Santo Domingoko ordenaren ordezkaria aritu ziren; Baztanen aldetik, berriz: «Sancho de Iturbide, alcalde de Baztan, cuyo es el Palacio de Iturbide, y Pedro Arrayoz de Zozaya, cuyos son los Palacios de Zozaya, y Arrayoz, y Juan de Iturbide, cuyo es el Palacio de Jaureguizar de Arrayoz». Konponketa horrek utzarazi zizkion monasterioari berriki arte erabiltzen zituen hainbat azienda-borda Baztango ipar-ekialdean. Aldiz, Otsondokoetatik mendebaldekoak gorde zituen monasterioak. Miguel de Narbarte agertzen da gero, sorginen garaiko 1607an eta 1610ean, Arraiozko jauregiaren nagusi.



Korapilo honek pertsonaia gehiago nahastu zituen, hala ere. Martin de Bertiz batek, tenorean Oronozko errotazaina edo errotaria, baina gertaeren sasoian Lekaroz-Arraiozkoa zenak, dio Pedro de Garacocheak errotara hurbiltzen ziren guztiei, Zubiriako Sabadina eta bere bi alaba (Beatriz de Çubiria mayor y menor) sorginak zirela azaltzen ziela. Are gehiago,

por su gusto solia dar algunas dadas a su hija que es niña por que dicesse y nonbrasse quien era bruxa y quien la llebaba y decia ella luego que las dichas quexantes y se engreya y olgaba el y su muger de todo esto (...) en que daba sospecha quel lebantaba la dicha çiçaya y hacia dicesse la dicha su hija y despues de esto fue senbrado por el pueblo la fama y es onbre deslenguado murmurador y muy ocasionado (...).

Garacochea edo Garaikotxeko (30) Pedrok 1607an aitortu zituen lurrak eta aziendak kontuan izanik lurdun ertain bat zen.

Xuyto (12) eta Garacochea “disculpantes” zirenen artean azaltzen ziren urteko zinegotzia zen Perotxenarekin (26) batera. Miguel de Narbart-en suhia dugu azken hori. Hiru arraioztarrak eta beste batzuk epaitu zituzten sorginak preso hartzean eta torturatzean eman zuten laguntzagatik.

Narbarten beste suhi batek —«Simon de Asco, cuyo es el Palacio de Asco»— antolatu zuen, prokuradore gisa, “disculpantes”-en defentsa. Aldiz, “quexantes”-en prokuradoretza Sabadinaren suhia zen Gaston de Ossek eraman zuen. Jauntxoeren arteko borroka badirudi ere, beste borroka batzuekin nahasia zetorren, etortzekotan.

Haurren aferara itzuliz, “disculpante”en taldearen erantzunaren islatzat har daiteke, esate baterako, 26 urteko Joanes de Yndak (21) zioena; guztiek omen zekiten, alegia: «los bruxos azian juntas en los aquelarres y endrecedera de estos tres lugares que estan contiguos (Arraioz-Irurita-Lekaroz)». Orobat aipatzen du solas egin zuten haurrak dagoeneko «mozas de edad de mas de doze años la una y la otra de mas edad» zirela eta zer kontatzen zuten:

lo dyzen ellos sin que se les haga pregunta alguna y le acaecido amenazallas y decilles que son apariencias u sueños y mentiras y afirmarse ser verdad (...).

Ondotik kontatuko duenak, aldiz, ametsetan eta lo dela ikusten duela dio: joan-eterriak, Akerrak egiten duen *aquel Larrea* tipikoa, eta abar (“disculpante”-en aldeko 3.a, 1612-V-31).

Gertaera hauek hobeto ulertzeko lagungarri da Idoatek (1978: 392) argitaraturiko 1611ko abuztuaren 29ko “Retractación hecha por Marichipi de Barreneche (9), de Arráyo, de 20 años, ante el comisario Aranibar, por descargar su conciencia”. Graziana de Barrenetxearen bilobak honela dio, besteak beste:

Dixo que por el mes de enero ultimo pasado, dixeron algunos niños del lugar de Arrayoz, que esta era bruxa y la auian visto en los *aquerlarres* y tubo muchos y diversos inducimientos y persuaciones, para que esta confesase ser bruxa. Y particularmente, el susodicho su padre la persuadia y se encolerizo con ella porque no le confesaua, y una vez le siguio con un tizon, y otra vez, asido al puñal, diziendola que si no confesaua, le daria con el. Y que tres noches y tres dias la tubieron con grillos, y que vistos los malos tratamientos y persuaciones, y que no

tenia otro remedio, confeso ante el dicho comisario que era bruxa y declaro algunas complices para que mejor fuese creyda, y que lo propio confeso ante otras personas para que la soltasen y dexasen, pero que en todo mintio y se perjuro, porque esta no es ni a sido bruxa, ni saue de otras complices, ni jamas se a hallado en aquerlarre (...) y no firmo por no sauer escreuir. Y firmo el dicho comisario. —Fray Leon de Aranibar.— Ante mi, Miguel de Narvart, not.

Grazianaren ahizpak ere, Catalina de Unidearenak “erretraktazionea” egin zuen, esanaren zuzenketa, alegia.

Maritxipiren aitak, Joanes de Barrenetxek (9), Grazianaren suhiak, beste “quexantes”-en taldeko testigantzen aurka, ez zituen torturak edo tratu txarrak ikusi. Entzun, bai, bere amaginarrebaren heriotzan torturak egon zirela entzun zuen. Harrigarria iruditzen zitzaion, dena den, ospe ona zuten emakume “handien” egoera: «an perdido mucho de su credito fama y reputacion siendo como son mugeres principales». Zehazki kontatu zuen, bai, Sabadina hartu zuteneko eszena, Barrenetxea Zubiriatik arrunt hurbil dago eta:

(...) por un domingo al escurecer en la quaresma penultima que a pocas semanas mas de un año bio que a cassa de Sabadina de Çoçaya fueron Joanes de Perochena jurado que al tiempo era. Y Miguel Chuyto Y Miguel de Ynda. Miguel de Echeberz y Joanot de Larrunaga y la llamaron y dixo el dicho jurado con buen termino que se fuesse con el por pressa a la casa que quisiesse y ella se enojo y dixo Miguel Chyto al dicho jurado que hiziesse de su oficio y a esto respondió ella a bellaco ladrón y el mismo Chuyto dixo bellaca bruxa antes de muchos días abeys de ser quemada en Logroño por bruxa y en esto los aquietaron y decia el jurado que la dicha prision la hacia por orden y mandato de los Comisarios de la ynquisicion y bio que con esto la dicha Sabadina fue sin que la llebasen asida ni que la ofendiesen a cassa palacio de Jaureguiçar que es a donde ella queria yr y estubo presa cossa de ocho dias pero no saue si tenia ningunos yerros ni otras prisiones porque no la bio mas (...) (“quexantes”-en 9. lekukoa, 1612-V-24).

Arraiozen agertutako guztia, batez ere Mardea auzoan gertatu zen. Urrutia izeneko beste auzoan, beste bi emakume-bikote salatu zituzten sorgintzat: Maria de Mendi eta María Martin de Eliçaguibelea ama-alabek osatzen zuten bat —Elizagibelea etxerik ez da ezagutzen gaur egun, baina egungo Ostua izan zitekeen (23)—. Alaba, lekuko batek zioenez, «(...) bastarda de Martin de Çubiri» zen. Goraxeago dagoen lurdu txikien gunekoa da Aldeko etxea (33-34). Bertan bizi ziren bi ahizpek, Kattalinek eta Mariak, jasan zuten beste salaketa. Beraiek hagitz garbi zuten motiboa:

(...) que Gentes que mal les querian les afrentaban y les ponian de aquella suerte y quel jurado las pusso pressas por orden de otros vezinos del pueblo sin ser culpantes en el casso (...) (“quexantes”-en 4. testigantza, 1612-V-22).

Etxeberriko Kattalinek kontatu zuen (“quexantes”-en aldeko 3.a) haiek preso hartu zuten egunean gertatutakoa:

(...) en la quaresma ultima passada aze un año por la misma quaresma decian unas creaturas que llebaban *alauelar* las dichas Catalina y Maria de Aldeco (33-34) a un niño de Joanes de Dindar (de Yndartea (31)) y su mug.r. los qual bisto esta fama la muger del Dindar començo a ponerse en colera y a buscar niños que le certificassen si abia tal cossa y como los niños decian que si y que era verdad y tambien una

muchacha comenzo a tratallas mal de lengua a las dichas Maria y Catalina de Aldeco ermanas diciendo que eran unas bruxas probadas y que los niños decian y que a su niño la llebaban muchas noches al aquel Lar y que las abia de azer castigar y que era oficio de malas mugeres y otras muchas palabras de afrenta y aun tomo un palo grande para la querer dar con el a la dicha Maria a quien mas la cargaba y no le dio porque el dicho Dindart su marido dixo que no metiesse manos en persona alguna y que abia buena justicia para pidir surremedio (...) (1612-V-22).

Dokumentuetan agertu diren “Aquerlar”, “aquel Lar” eta “aqueelar” guztiak azpimarraturik daude benetan desberdinegiak diruditelako hain ezaguna behar zuen toponimoa edo ospakizun bera izendatzeko. Hori bezain nabarmena da, eskualdez eskualde, eta, garaitik garaira, dagoen zehaztapenen arteko desberdintasuna.

Ospe onaren aferarekin bezala, preso hartze moduekin eta torturekin lekukoak ez datoz bat. Epaiak frogatutzat eman zituen tratatu txarrak. Hala eta guztiz ere, estatusaren araberako tratatuak bereiz daitezke: gogorkeriaren barruan gozoagoa da «hija de padres de notoria nobleça e ydalguia» zenak izan zuena; bestelakoa da «viuda pobre y necesitada» bati eman ziotena. Ziegak ez ziren berdinak: Jauregizaharreko gela bat eta Yndarteako txerrikotia. Ezta boteretsuenen artean piztu zuen kezka ere. Yturbideko Kattalin andereak, adibidez, aizkora batekin askatu zuen Zubiriako Beatriz, biak “jauregikoak” baitziren. Sabadinak mezulari bat bidaliz lortu zuen askatasuna Urdazubiko abadearengandik, gero alabarengatik trukatu bazuen ere. Beatriz erdi berria zen. Jauregizaharreko sotoan ziren emakume xumeagoei, berriz, ezkutuan jana emateaz arduratu zen Yturbideko Kattalin.

Bi taldeen testigantzak aztertzen badira, “quexantes”-enek nahasiagoak dirudite (edo prestatuagoak “disculpantes”-enak); hala ere, “disculpantes”-en artean ere jokaera desberdinak antzeman daitezke. Urrutia auzoko goiko aldekoak sorginkeriaren errealitateaz ziur zeuden: ospea, haurren solasak, aitopenak... baina 22 testigantzetatik 16tan agertzen dira familia ertain eta pobreetakoak. Narbarten alabek aitaren alde jokatu zuten, noski, aitaren etxearen (22) defentsan, eta haiek bakarrik aipatu zuten Aranibarrek txostenean (III) idatzi zuen Grazianaren heriotza ikaragarria: Jesukristoren, gurutzearen... eta Deabruaren presentzia. Hori bai, abadeak “gizon beltza” aipatu zuen, Maria Martin de Narbarte, aldiz, «su cabron»; hark «una muchacha confitente» ikusi zuela esaten zuen bitartean, Maria Martinek bi zirela zioen

es de ocho años el un muchacho y la muchacha de nuebe y estas creaturas estan bedadas y las otras que no pueden decir nada so pena de excomunion mayor por el ynquisidor atento confesaron ser bruxos (...) (“quexantes”-en aldeko 17.a, 1612-VI-5).

Prozesu honetan, ugariagoak dira bat ez datozen zehazkizunak. Luzeegia litzateke guztiak banan-banan azaltzea.

Aipamen batek zeharkatzen ditu bi taldeetako ia testigantza guztiak. Aginduak Inkisizioko familiarrek edo “comisario”-ek eman zituzten; haurren gurasoek eskatuta, ekintzak edo «vias de echo» saihesteko, baina haiek emanak zirela zioten guztiek: jaso, aditu, zurrumurrua... Miguel de Narbarte eta eskribaua zen Martin

de Elizondok argitu zuten lainoa: Narbartek esan zuen Aranibarrek Perotxenari hitzez eman ziola agindua eta Perotxenarekin tratatzen zuela maiz berarekin kon-tatu gabe. Martin de Elizondok, bere aldetik, argi eta garbi esan zuen «(...) y este mandato y orden lo dio por muchas vezes el abbad por presencia de este testigo verbalmente (...)» (“quexantes”-en aldeko 21.a, 1612-VI-6). Abadeak bere txostean (III) zioen «sin orden» hura bera. Hori bai, Salazarri idatzi zion beste batean (Caro Baroja, 1970: 244-245), Becerra inkisidoreak esan omen zion Martin de Elizondori: «que estaba bien prender a las maestras que llevaban a los niños a los aquelarres». Azken finean, arreta edo grina gehiegi izan daiteke, edota aginduen interpretazio zorrotzegia.

Testigantzetan, herritar batzuek erakusten duten sinesmena sorginkerian eta, bide batez, jasan duten nahaspila eta ezinegona ere susma daiteke.

Joanes de Perotxena (26) “jurado” edo alkate-zinegotziak alde bat nabarmendu zezakeen. Bestea, aukeran, etxe lurduan ertainetako andereak ziren Maria de Michelenak eta Maria de Eliçaldeak emandako testigantzekin osa daiteke.

Arraioz herriko “jurado”-tza zuen Perotxenak urte batez eta Baztango moldaketa berezian (zinegotzi paperarekin pareka daiteke, herriko alkatetzarekin eta udalerraren mende). Lurdun txikiena izanik, laborea ereiteko sei bat area, hamar ardi eta zaldi-zamari bat zuela zioen, 1607an. Esku anitzetara jokatu zuen: batean sutsuki gogor agertzen zen, hurrengoan errukia agertzen zuen, eta Joanes de Arrayoz Yndak eman zuen testigantzan, negarti eta guzti:

(...) prendio a la dicha Maria Martin y la pusso pressa en cassa de este tetigo y con yerros y le ato las manos por las espaldas abaxo aunque no con crudeça sino solo cirimonia por que el dicho jurado decia era mandado por los dichos comisarios del Santo Oficio y le ataba y daba los yerros llorando y sacando lagrimas bisto la lastima que le hacia y que le mandaba assi lo hiziesse y tambien por ser el mismo jurado ombre pobre y necesitado (...).

Gartzaingo harginak, Yrunberek sinatu zuen, baina, Perotxena salatu zuen hilko zen Grazianaren torturatzaille bezala:

(...) le quito los çapatos de los pies y le ato muy fuertes los brazos con un pilar que tiene la cassa y estando assi con el rigor del inbierno y tormenta le echo una cadena muy grande por el cuello abaxo que su gran pesso le hacia declinar la cabeza y ombros parabaxo (...) (“quexantes” aldeko 18.a, 1612-V-28).

Zeharo desberdina dugu arestian aipatutako bi emakumeen ikuspuntua. Mitxelenakoa (30) Aldeko (33-34) eta Indarteatik (31) hurbil bizi zen, Urrutiako auzoaren goiko aldean. Maria Mitxelenara ezkondu zen, Sancho de Michelenarekin. Adinekoa zen hiruretan hogeitau urte baitzuen. Senideak zituen auzian: “disculpantes”-en artean Yndarteako Juanes (31) eta Xuyton andrea (12); “quexantes” artean, aldiz, Aldeko ahizpak Kattalin eta Maria. Ez zuen duda-izpirik ere: sorgintzak egiazkoak ziren, etxean bertan ezagutzen baitzituen (“disculpantes”-en aldeko 5.a).

Izan ere, Maria de Michelenak esan zuen bere zortzi urteko biloba “disculpantes”-en seme-alabekin “aquelarres”-etara eramaten zutela. Nonbait Aldeko ahizpa horiek, Mendiko Mariak bezala, familiaratik jaso zuten abilezia. Graziana de

Barrenetxeak berak, lekukoari kontatu omen zion otoitzak esan nahi zituenean, bene-benetan Gure Jainko Jaunaren babesean jarri nahi zelako, ohantzera Akerra etortzen zitzaiola. Deabruak ukitze bakarrarekin nahi zuen lekura eramaten zuen Graziana.

“Juradoek” Narbarten etxera (22) preso eraman zutenean Graziana, hil zorian zela ikusi zuen Mitxelenako andreak; libre zen, bat ere lokarririk gabe, Narbarten andreak eta alabak ederki zaintzen zuten eta... arima Jaunari eman arte.

Aldeko ahizpekin (33-34) gertatu zitzaion behin: ongi joan zen gau batean lotara eta ernatu, minberatu eta beltz-beltz ernatu zen, gorputz osoa ubelduta zuen, bakarren batek makilen batekin xehatu izan balu bezala. Etxeko mutikoak (29) eta Garaikoetxeako (30) alabak esan zioten kalte hori, gau hartan bertan, Aldeko (33-34) ahizpek egin ziotela, Deabruaren aginduz etxera etorri zitzaizkionean. Mariaren esanetan, hilabete oso bat egon zen eri ubeldu haiek kendu ezinik.

Mitxelenako Mariarekin batera, garrantzi berezia du Elizaldeko Mariak esandakoak. Izen bereko etxean (24), Juanes de Elizalderekin bigarren ezteietan ezkondua —haren testigantzatik ondoriozta daiteke azken hau—, 56 urte zituen. Etxaldeak 32 gizalur zituen sagasti eta irasail lurretan, eta 14 errege-lur labore; 1607an, Mariaren senarrak 7 behi, 50 ardi eta zaldi-zamari bat aitortu zituen. Maria Iruritan zen 1612ko maiatzaren 23an, Gaston de Osses-ek antolatutako galdeketa informazioa ematen (7.a). Berrito agertu zen, Mitxelenako Mariarekin batera, ekainaren batean, Simon de Asco-k antolatutakoan (6.a). Berrito agertuko da irailaren 21ean ere, testigantza hartzaileak hartuko zuen taldean (3.a eta 7.a dira Maria biak).

Hasierako hartan, maiatzaren 23an, argi eta garbi azaldu zuen salatu guztiak ezagutzen zituela txiki-txikitatik: fama onekoak, kristau finak... inork ez zuen susmatzen sorginak zirela, arestian aipaturiko haurrak hitz egiten hasi ziren arte. Urte bat egin zuen. Harrezkerotik “sorginek” izen ona galdu zuten.

Sabadinarena (3) jakin zuenean, Jauregizaharrera ikustera joan zitzaion. Bitan joan eta bietan ederki topatu zuen sutondoan —negu gorria zen—. Perotxeneko (26) Joanesez, juradoak, eramana zela zioen Sabadinak, sorgina zelakoan edo.

Yndara (21) ere joan zen, Zubiriako (3) Beatriz bisitatzera. Lehenengo aldian han harrapatu zuen, burdinak zangoetan zituela. Josten ari zen sutondoan, baina penatu samarra. Gero ez. Hurrengoetan ez burdin ez lokarririk. Aski kontent ikusi zuen, haurrari titia ematen. Yndan egin zituen zortzi egunetan ongi jana eta edana ikusi zuen, hotzik gabe eta etxeko edozein bazterretatik mugitzen zela.

Beste atxilotu batek, Mendiko Mariak (23), berrogeita hamabost urte baino gehiago zituen. Herriko ziegan zortzi bat egun eduki zuten. Testigantza ematera koan, nork eta zergatik hartu zuen preso eta zein modutan egon zen eta berak ikusi zuen galdetu ziotenean, baietz erantzun zuen. Behin baino gehiagotan ikustera joan zitzaion eta negu erdian, surik gabe, burdinekin loturik eta bere arropa soilarekin ohantzean aurkitu omen zuen. Jakin, xeheki gehiago ez zekiela esan zuen; ez nor zuen etsai Mariak, ezta torturatu zutenik ere. Aditu bai, aditu zuen

Perotxenak hartu zuela preso haurrak “aquel Lar”-etara eramaten zituela esaten zutelako.

Hirugarren testigantza berriro Iruritan eman zuen Elizaldeko Mariak, bederatzi egun geroago. Egun horietan, Arraiozen besterik ez zela adituko pentsatzea zilegi da: lixiba egiten ari zirela, elizatean, errotan, jorran, kanpoan... (dokumentuetan jorra, errota eta eliz-bideak agertzen dira). Antza denez, arituz oroitu zen Elizaldekoa Aldeko ahizpen izeba sorginarekin; Maria zen hura ere, sorgina eta serora. Oroitu zen bere senar zenari pultsua hartu ziola behin eta hurrengo egunean, hil zen arte, elbarri utzi ziola besoa. Sorgindu egin zuela pentsatu omen zuen, orduan.

Sabadinaren aitari buruz ere berriro zitzaion oroimena. Hark zuen abilezia lotu eta askatzeko zerako zera hori (alua) etorriko zitzaion burura; «atar y desligar» idatzi zuten, erdaraz. Maria bera lau urtez loturik eduki zuela sinistuta dago, ezkondu zen egun beretik. Urte horien burura behin berarekin topo egin eta galdetu omen zion senarra haragiz ezagutzen ote zuen:

le dixo este testigo (Sabadinaren aitari) con su malicia que ssi y le mintio y la misma noche la conocio su marido carnalmente y tubieron copula lo que no podian tener antes (...).

Laburbilduz: “quexantes” ziren «Sabadina de Çoçaya, Beatriz de Çubiria y Beatriz de Çubiria ermanas, Maria Martin de Eliçaguibelea, Maria de Mendi y Maria de Aroçarena, Catalina y Maria de Aldeco, hijas de Joanes de Aldeco vezinos del lugar de Arrayoz contra Joanes de Perochena jurado y de Miguel de Chuyto y de Maria Churitorea su muger, Joanes de Dindart, Martin de Cortayre, Pedro de Garaycochea, Joanes de Eliçalde, Joanes de Unidearena, Pierres de Dendaria, Maria Dindartea, Miguel de Echebelz, Joanot Larrunaga, Adame Señoriarena, Miguel Ynda, Miguel de Hualde y Maria de Arrechea muger de M. de Arreche», garaile atera ziren. Epaiak bereziki hauek zigortu zituen: «Joanes Perochena acussado en seys años de destierro deste reyno y al dicho Miguel Xuito en un año de destierro del dicho Reyno y lo salgan a cumplir dentro de seys dias despues que fueron librados de la carceleria en que estan y no lo quebranten so pena de doblado destierro y mas condenamos al dicho Joanes Perochena a cien libras y a los dichos Xuito, Pedro Garacochea, Joanes Yndart Y Miguel Ynda, —zergatik de horien desagertpena?— Joanes de Urruaga y Miguel de Echeberz en cada cinquenta libras aplicadas todas ellas para nuestra camara y fisco y gastos de Justicia por mitad y damos por falsas y maldichas las palabras injuriosas que los dichos acussados dixieron y publicaron contra el honor y reputacion de las dichas acussantes y declaramos no caer aquellas enellas y mandamos a todos los dichos acussados que de aquí adelante ni en publico ni en secreto no ynjurien a las dichas acussantes sopena que seran castigados con mucho rigor (...). 1612ko azaroaren 20a zen.

Ez Aranibarrek, ez Narbartek ez zuten zigorrik jaso, euren parte-hartzea Inkisizioko afera baitzen. Hala eta guztiz ere, “quexantes” zirenek behin baino gehiagotan, prozesuaren tarte desberdinetan, batez ere Miguel de Narbart jaunaren ardura zehazki azpimarratu zuten, baina epaiak haien foru bereziarekin konpontzen zuen dena: justizia zibilaren eskuetatik kanpo daude.

Lehenik eta behin: egia zen. Herritar guztiek zekiten, ordea, haiek agindu zutela eta Narbartek bere etxe propioa erabili zuela zein eta Grazianaren kasuan, gertaera gogorrena izan zen horretan, hain zuzen ere. Zigortuek epaia onesterik bazuten? Erbesteratzeak eta isunak bete eta kito?

Errudunen prokuradoreak egin zituen saiakerek frogatzen dute, froga daitekeen neurrian, bide legala ez zutela baztertuko, baina egunez egun, bertatik bertara, beste saiakera batzuk eginen zituztela pentsa daiteke. Litekeena izateaz gain, betiko leloarekin egin dugu topo: horiek ez dute tokirik dokumentuetan. Lasai ederrean utzi zuten errege-eskribaua Perotxena eta Xuytoko andereek, Garai-koetxeak, Indarteak, Indak, Larrunagak eta Etxebertzekoek? Ulertezina irudituko litzaiguke; toki publikoetan, errotan, elizan edo bideetan zeri buruz eginen zuten solas arraioztarrek epaiaz geroztik? Noren aurrean zabalduko ziren solasjarioen barruko etenak? isilune nabarmenak? Xuytoko andreak edota Garaikoetxeak, irakurria ikusirik, mutu? Giroa ezagututa zentzuzkoagoa dirudi Narbartetarren etxeak zuen eskailera hasieran edo atean bertan, leiho gotiko baten azpian, beharbada, kexuka, oihuka eta berdintasun eske imajinatzea. Gehiago, aise gehiago, isil-isilik baino.

Informazioaren garaian ikasi genuen Miguel de Narbartek eta familiakoek babes-jokoa aski garbi zutela: hark, aitak, Urdazubiko abade eta Inkisizioko kargodun zen Leon de Aranibar fraidearen aginduak bete zituen. Berea, “nahitaezko obediencia” izan zen.

Pisuzko arrazoiak eta aldeko baldintzak beharko zituen Aranibarrek berea aitortzeko: 1612ko ekainaz geroztik, hitzezko aginduak berak eman zituela idatzita eta Martin de Elizondok onetsia egonik ere, 1613ko urtarrilaren 14an onartu zuen. Ez edozein modutan. Aitortu zuen, bai, honako hau:

(...) Joannes de Perochena vezino del lugar de Arrayoz al presente preso en las carceles Reales de la ciudad de Pamplona, las prisiones que hizo en algunas personas del dicho lugar de Arrayoz siendo jurado del dicho lugar el año proximo passado, las hizo por mi expresa orden que para ello le di (...).

Hori bai, afera erlijio katolikoari zegokion eta Inkisizioaren eskuetan zen.

Agiria, hain ezaguna egiten zaigun Miguel de Narbarte errege-eskribauak idatzi zuen edo, hobekigo esana, berak sinatu zuen «Passo ante my» jarri ondoren. Leku-koak, ere, ez ziren edonor: Joan de Asco, «señor del palacio de Asco», eta Simón de Asco, «Escribano Real vezino del lugar de Elvetea». Dena familian gelditzen zen —Simon eta Perochena suhiak baititu eskribauak—. Ascotarrek Aranibar presionatu zuten? Beste “baina” bat dago oraindik. Sinatzen zuen Aranibar fraidea ez dugu garaian ezagutu genuen hura, soilik. Aitormena eta sinadura egin zuena dugu,

Abbad del monasterio de San Salvador de Urdax de la orden de Premostre y Vicario general de la dicha orden, comisario del dicho Santo Oficio de la Inquisicion deste Reyno de Navarra.

Dakigunez, gerora ez zuen, berak, Aranibarrek, inongo arazorik izanen. Perotxenari, berriz, Erreinuko erbestealdia bi urtera murriztu zioten eta Iruñetik eta Arraioztik bi legoatara bete behar izan zuen gure lagunak. Eta, zigorra osatzeko, «con que así bien condenamos al dicho Perochena en suspenssion de officio de jurado del lugar de Arrayoz por tiempo de diez años».

#### 4. Zio gurutzatuak eta gatatzaren sasi-konponketa

Gelditu dira, dena dela, erantzun gabeko hainbat galdera. Zergatik hau guztia? Zehazkiago, Arraiozkoak ez du beste gakorik eskaintzen? Bat edo beste, bai.

Esate baterako, boterearen indarra: “quexantes”-ek eurek azaldu zuten prozesuaren hasieran, gehiegikeriak egin zirenetik salaketara urte bat baino gehiago joan zela. Arrazoia ere eman zuten: etsaiak boteretsuegiak zirenez, beldur zirela. Beste alde batetik, Arraiozkoa eskuetatik joan zitzaion Aranibar abadeari. Ez zuen kontuan hartu, seguraski, monasterioko kolonoekin pareka zitezkeen arraioztar arruntek aurre egiteko zuten gaitasuna, gero eta indartsuagoa eginen zela lurdun ertainak sartuz gero. Eta zer esanik ez jauntxoei («palazianoei») iraina jasanaraziz. Urte luze hori behar izan zuten Gaston de Ossesek eta lagunek “quexantes”-ak taldekatzeko. Aranibarrek, Logroñoeko Inkisizioaren jarrera-aldaketa ezagututa (sorginkeria ikusteko era), bere burua babesteko erabili zuen denbora: Bikario Jeneralarena lortzeko, hain zuzen ere, horrek ardurak eskatzea tratatzen baitzuen. Hala eta guztiz ere, Zubiriako jauntxoekin zalu jokatzek, Barrenetxeko Grazianarekin, aldiz, temati izan zen bezala, bere duda-mudak eta aurreiritziak erakusten dituela pentsaraz dezake. Ohartu beharko ginatke, dena dela, bere txostenean (III) jauntxoekin tratatzeko botere bereziak eskatu zituela. Antzeko zerbait gertatu zen Bortzirietan, Etxalarren, Maria de Endara hogeita bost urteko alarguna eta burdinolaren jabearen jazoeran: jauntxoek aise lortu zuten babesa. Honek beste eztabaida bati ematen dio tokia.

Aspaldi keXu da Henningsen maisua estereotipoen indarraz. Gezurraren gainean eratu zen sorginkeriak, egiantzekotasuna lortzeaz gain, sorgin-emakume-zahar-pobrearen estereotipo indartsua sortu duelako. Datuekin egin nahi izan dio aurre, mitoak iritziaren aurrean sorgor ez balira bezala, eta beren barrenean egiaren zatiren bat izaten dutela atzendurik. Henningsen-ek frogatu du, eremu guztietako (1995: 6) emakume-zahar-pobreek ez zutela salatuen gehiengoa osatu. Bai, ziur aski, zigortuen artean, hiru baldintza horiek indefentsioarekin bat egiten baitzuten (Otazu, 1978: 841).

Arraiozkoan ere denetik egon zen. Emakumeek eta gizasemeek izan zuten parte, baina zigortu guztiak gizasemeak izan ziren, eta emakumeak izan ziren preso hartuak, torturatuak eta irainduak. Hemezortzi edo hemeretzi urteko Elizaldeko Katalinek zehazki zer esan zuen ez dakigu, euskaraz solastatu baitzen; dena den, berak bertatik bertara ikusitakoa adierazteko sei akusatu banan-banan aipatu eta «los unos ayudando a llebar las unas y los otros a otras» aritu zirela dio, sexu bakoitzaren parte-hartze nagusia nabarmendu nahi balu bezala (“disculpantes” aldeko 21.a).



Elizagibeleko Mariak, Mendiko Mariaren alabak, alde egin zuen herritik. Zurrunbiloaren hasieran birjina zen; Perotxenak preso hartu eta negarrez lotu omen zuen; haurdun agertu zen, geroago. «Tierra de Vascos» (Behe Nafarroa) aldera egin zuen ihes, ahizpa baten etxera; bidea lasaixeago egiteko «en abitos de ombre» egin zuen bidaia. Errealitate hau sarri lantzeko asmoa dugu, Elgorriagako beste prozesu bat dela medio, han toki berezia duelako. Sorginkeriaren afera bere konplexutasunean ulertzeko zeharkako datuak ere baditugu. Logroñoko inkisidoreen arteko desadostasunak bide eman zuen bai Salazar y Frías jaunak, bai Becerra eta Del Valle Alvarado jaunek, bakoitzaren ikuspuntuko iritzien txostenak egin zituzten. Becerrak eta Alvaradok euren txostenari buruz diotenez (Idoate, 1972: 33), «(...) en este se comprueban con actos singulares las cosas comunes que uniformemente confiesan los bruxos». Salazarrek bildu zituen testigantzei aurre egin nahi zieten. Bildu omen zuten, sailkaturik, «(...) lo que declaran casi dos mill personas, que asta ahora ay confitentes». Inkisidoreek laburbildu zuten zein motibo egon zitekeen erlijioz aldatzeko eta sorginkerietan aritzeko:

(...) les dicen y persuaden expresamente que sean bruxos, proponiendoles que se olgaran mucho y quel dios y señor de los bruxos es muy poderoso y les sacara de lazeria y dara lo que huvieren menester. Y que en las juntas, comeran y beberan abundantemente, y que aquel señor los bengara de quien los hubiese ofendido, y otras cosas semejantes, diciendo a cada uno lo que basta a moberle (...).

Guztira 263 kasu bakarrik aipatu zituzten Becerrak eta Alvaradok. Sorginkeriaren eremu zabaleko horietatik hemezortzi azaldu zituzten Acto 1<sup>o</sup> deitu zuten lehenengo atalean, onarpenaren motiboak bilduko dituzten horretan. Gure beharretarako gezurrak badira ere ez du inporta, azken finean itaunketa latz batean ere, erantzun bortxatuek bide logikoak jarraitzen dituzte eta. Ondoko hauek lirategi testigantza horietan “motibo ona” kontsideratu zirenak: dirua eskaini zitelako, bost; garia, bi; janaria, bat; «lo que hubiese menester», lau; «remediar sus necesidades y traujos», lau; zor bat kitatzeko, bat; «holgar», sei; «sacar de lazeria», bi. Harreman berezikoak: amak esana, lau; amaginarrebak esana, bat; aitak esana, bat. Egoera berezian: erdi berriak, lau. Orokorrean behartsua zelako, lau; motibo berezirik gabe, bi. Gehienek motibo bat baino gehiago elkartzen dituzte. Bi gizaseme eta hamasei emakume izan ziren. Guztiak mende-aldaketan zegoen krisialdi ekonomikoan murgildurik.

On Alonso de Salazar y Frías inkisidore jaunak berak ez zituen ezagutu jokoan egon ziren bilbe, azpikeria eta trikimailu guztiak. Sorginkeriaren izurriteak arduratu zuen, horren errealitateak, neurketak eta konponketak alegia, eta horri lotu zitzaion buru-belarri. Maisuki lotu ere. Logroñora bidali zutenean ez zekien gauza handirik, baina metodikoa zen, zantzu ergelen agerrera benetan agudo sumatu zuen eta ikastera, jakitera lotu zen. Adore autokritikoko gizasemea izaki, lankideak eta bere burua aztertzeaz gain, dokumentuak arakatu zituen, hutsuneak harrapatu, eta erronkari ekin zion.

Sorginkeria zuen gaia. Arrimura gordeak ziren hainbat korapilo, ordea, ezin zituen pentsatu ere, baina bukaera aldera proposatu zituen puntuak (Heninngsen, 1983: 322-326) egin zuen bidearen erakusle dira.

Ikaratuak lasaitzen eman zuen denbora, mamuaren ondorioak desarmatzen hain zuzen ere, dakigunez gezur handi hark zituen interes partikular ezkutu guztiak asmatu gabe. Ez da harritzekoa. Logroñon zenean, aldamenen zituen beste bi inkisidoreek, antza, itsu-itsuan sinesten zuten sorginkerien errealtatean. Lapurdin aritu zen Pierre de Lancre bezain sineskorrek ziren, bai hasiera haietan, bai ondoren, baita Salazarrek jada bideratu zuenean ere. Honek frogatuaren aurka aritu ziren sutsuki beste biak, amore eman gabe. Lancrek, berriz, hain ezaguna eginen den lana argitaratu zuen (*Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons*), sorgin euskaldunaren estereotipoa finkatuz behin-betiko. Estereotipo horri egin behar izan zion aurre Salazarrek.

Proposamenak egiterakoan zituen helburuetatik gehienak lortu zituen, bat izan ezik: gehiegikerietan aritu ziren Inkisizioko zenbait partaideren zigorra. Lorenzo de Hualde Berako erretorearena eta beste batzuen eskatu zuen, «(...) en los dichos terrores y violencias (...)» parte hartu zutelako. Proposamen osoa ezabatu zioten (Henningsen, 1983: 327). Aranibarren aztarnarik ere ez dago, Salazar y Fríasek berak susmagarritzat ez zuelako edota Aranibarrek emandako azalpenak sinetsi zituelako.

Zalutasuna: horretan datza Leon de Aranibar abadearen arrakasta. Ez zela duda luzeko pertsona, alegia. Ikusi orduko neurtu zuen Valle y Alvarado inkisidorearen sineskortasuna, eta bazka eman zion. Nola edo hala ezagutu zuen Salazar y Fríasek zuen jarrera, baita apezpikuek ematen zioten laguntza ere, eta 1611ko urtariletik martxora jarrera aldatu zuen: “herritarrek” eginiko torturak eta ekintzak zurriz segitu zuen otsail osoan. Gero eta ausartagoa zen; otsailean, Zubietatik hiru sorgin bidali zituen Logroñora, Inkisizioaren agindurik gabe. Eta bat-batean, martxoaren hemezortzian, Inkisizioko “estilo gozoaren” aldera pasatu zen. Arraioztik Oronozera —ondoan dauden herriak dira—, zezenari adarrak ikusi izan balizki bezala, Becerra eta Valle Alvarado inkisidoreen jarrera gogorra baztertu eta Salazar beraren konfiantza eskuratzeko gauza izan zen. Baita Premostre ordenarena, eta Nafarroa Erreinuako Errege Auzitegiarena ere, neurri batean.

Zeharka, dokumentaturik ez dagoelako, hainbat pasadizo antzeman daiteke. Erregeordeak Nafarroako Kontseilua bera geldiarazi zuen beste behin: Arbizu espioi ospetsua, Felipe II.aren idazkaria hiltzeko agindua zuen hura, Iruñean agertu zen hartan. Arbizuk arrazoi garrantzitsua zuen hirian agertzeko: andreak kopetakoak jartzen omen zizkion beste espioi batekin. Egia da banatuta bizi zirela, baina, izan, bere andrea zen. Eta «(...) porque no se disculpase con decir que estaba en negocios de S.M.<sup>a</sup>.» aske utzi zuten, erregeordearen aginduetara, epaiaren zain pare bat auzi bazituen ere (Idoate, 1981; Carnicer-Marcos, 1998).

Aranibar abadeak horren berri zuen, nahitaez. Urte batzuk joanak baziren ere, bera espioi-sare berdineko partaide zen, eta arduraduna, XVI. mendeko azken hamarkadan. Berezko iaotasuna, ziurrenik, eta eskola aparta zuen gure abadeak; izan ere, espioitza-sarean aritu zen bezala aritzeko aipatutako dohainak behar dira. Aritu zen tenorean okerrik ez baitzaio ezagutzen, zituen trebetasunak garatu zituen: gezurrak kokatzen eta erabiltzen, pertsonen tratuan, harreman- eta informazio-sareetan jokatzeko, ikas zezakeen eta ikasi zuen. Baionako konkista antolatzekeko abilezia erabili zuen, asmoa porrotean bukatu bazen ere. Kontraes-

pioitzan ere aritu zen, eta Antonio Pérezen (Felipe II.aren idazkari traidorearen) hilketa-saiakerarekin harremana izan zuen. Bere buruaren alde ere aritu zen, esaterako monasteriotik beste batera eraman ez zezaten, erregeordeak hori eskatzea lortu baitzuen (Gallastegui Uncín, 1990: 39). Nahitaez, Erregeak Inkisizioa maneiatu zuenaren berri izan zezakeen, non ikasi baitzuen etsaia hiltzea zilegi dela, azpikoan lortu behar bada ere. Horrez gain, Iruñean bigarren kapituluaren hasieran azaldu den Andueza jauna ezagutu zuen: Fermin de Lodosa y Andueza, behar bada, eta Pedro de Lodosa y Andueza, ziur ezagutuko zituen. Urdazubiko monasterioak zuen ordezkaritza politikoa —jarleku finkoa Gorteetan— abadearen esku zegoen; San Salbatoreko Iruñeko egoitzak —gaur egungo Comptos Ganberarenak— “gizarte” harremanak posible egiten zituen, alde batetik. Bestalde, abadeak nahitaez egon behar zuen Anduezarekin, bera baitzen Nafarroako Diruzaina, espioitza-lanak ordaintzeko “boltsa bereziaren” giltzetariko bat. Araizko sorginkeria izan zuten hizpide solasaldietan? Nola edo hala, Arraiozkoa atzeratzeko eman zuen bataila; kargu berria lortu zuen, eta ez zen huskeria izan, emaitzak ikusita.

Urtubitarrek, aldiz, ordurako landuagoa zuten Lapurdikoa, Bortziritakoa baino (Paul, 1998). Altzate ziren heinean, lurrak, errota eta elizaren patronatua edo nagusigoa zuten Beran, baina Lesakako Zabaletatarrek itzal handia egiten zieten Beratik haratago joan nahi bazuten. Marritzalartarrek harreman-sarea osatzen zuten Zabaletatarrek Iruñean, XVI.eko azken hamarkadakoek eta XVII.eko hasierakoek frogatu zuten bezala (Otazu, 1978; Mikelarena, 1988). Aukeran, jarraitu besterik ez zuten egin behar Urtubitarrek; Berakoa mantendu eta Hendaiatik Donibane-Lohitzunera, Urruñatik Azkaingo basora saiatu ziren, ez arazorik gabe. Mugaren bi aldeetan auzi ugari zituzten euren asmoei aurre egiten zietenekin, herritar apalagoak ziren horiekin, nolabait esateko. Baina arrakastaren lekukotzat har daiteke Altzate eta Urtubiako Tristanez pilatu zituen ardurak: «Chevalier, Gentilhomme ordinaire de la Chambre du Roi, Bailli d'Epée, Colonel-Commandant des Troupes du Pays de Labourd» (Jiménez de Aberasturi, 1980: 357). Frantziako estatuaren alde aritu zen garaiko ikurrak dira.

Urdazubiko monasteriokoek, ordea, nahitaezkoa zuten elkarlana; esaterako 1462az geroztik Altzatetarrek San Salvadorrekoekin meza emateagatik eman beharreko ordaina hitzartua zuten (A.D.B.P., 1 J 160). Garrantzitsuena da, hala ere, Bizkaitik itsasoz ekartzen zen minerala behar zutela monasterioko burdinoletarako, eta mineral horrek jauntxoek aise oztopa zezaketen bide luzea korritu behar zuela (Donibane-Lohitzunetik Azkainera ibaiz, Azkainetik Urdazubira mandoz); gauza bera alderantzizko bidaiari burdin-totxoak ateratzeko (Arizcun, 1988: 297; A.G.N., Protocolos Notariales, Elizondo, M. de Narvarte, 21). Urtubitarren onarpena behar zen honetarako guztirako. Eta, bukatzeko, harreman pertsonalen alorra zegoen, alegia. Aranibar espioitza-sarean aritu zen garaian Urtubiko Damaren parte-hartzea dokumentaturik dago, Felipe II.ari bidaltzen zizkion euskaraz idatzitako oharrek direla eta (Satrustegui, 1993). Horrez gain, nolabait tratatua zuten elkarrekin Aranibar eta Urtubitarrek sorginkeriaren kasua, bigarren atalean aipatutako «siete procesillos de actos comprobados de las cosas que han confesado estos brujos» delako hark erakusten duenez —agian Valle Alvarado inkisidorea behar zen bidera erakartzeko prestatuta egonen zen hura—.

Are gehiago, zeharkako bidetik bada ere, dokumentu zuzenak galdu direlako (bataioen eta hildakoen liburuak), Aranibar eta Altzate-Urtubitarren arteko harreman-zantzuak ageri dira. 1612.eko prozesu batean (A.D.P., Treviño, 2.252, 8), Aranibar abadearen iloba bat Lesakako Martin de Vergara zela esan zuten lekuko batzuek. Vergara —dokumentu anitzetan Bergara azalduko da— abizenekoak ziren Arantzako jauntxo batzuek, beste jabego batzuen artean, Aranibar dorrea zuten. Aranibarko Vergaratarrek, leinuen arteko gerra luzean, Altzatekoekin bat egin zuten Igantzi eta Lesakako Zabaletatarren aurka, Arantzan, Igantzin eta Lesakan (Jiménez de Aberasturi, 1980: 359-363). Mende luze bat joana zen harrezkeroztik, baina abadeak iloba bat zuen aldamenean, eta bere izen erlijiosoa aukeratzekoan familiaren dorrearena hartu zuen.

Nafarroako eta Frantziako erregea, Henrike III.a eta IV.a hurrenik hurren, izan zitekeen Urtubitarren eredu? Zer ikasi ugari eskaini zien, hortaz: erlijioa eta politika nola uztartu botere pertsonalaren alde, eskrupuluak edo kezak nola baztertu ordura arte defendatutako guztia zokoratzeko, Frantziako koroa lortu zuenean. Izaera “aldakor” hori agian ez zion barkatu 1610. urtean labankadaz hil zuen katolikoak.

Gogoan izan behar da Espainietako (“Las Españas”) koroa Felipe III.ak zuela 1598az geroztik. Bitartean Frantziak Luis XIII.ak hartu zuen erregetza. Nafarroaren eta beste lurralde batzuen gainean eraikitzen ari ziren bi estatuak. Zein garrantzi zuen, maila horretan, bazterreko herri xume bateko sorginkeriak? Afera muga zen; muga, gerra, boterea, politika... Horri esker, neurri batean bada ere, bertako botereetsuak sarraskia prestatzen ari ziren, han ziren bertako eta kanpoko elizgizonek moldatu zuten bertako herri xumearen gaineko izurrite “sortua”.

Gogorragoa etorri zitzaion herri moriskoari Felipe III.a erregearen aginduz (1609). “Berta-bertakoak” ez zirelako erbesteratu zituzten 300.000 lagun, Ala eta Turko Handiaren itzulera, etorrera edota garaipena prestatzen ari omen ziren bel-durrez (honi buruz Menéndez Pelayok idatzitakoa irakurtzea merezi du, aipamen arrazista-nazionalista espainiar eta guzti, *Historia de los heterodoxos españoles* delako hartan).

Testuinguru honetan, estatuaren arteko gatazketan, gerren eta lur-konkisten ondoriozko erabaketan kokatu du Muchembled-ek, hain zuzen ere, “L’Europe des bûchers” (1993). Beste zenbait historialarik Felipe III.ari berari egotzi diote sorginkeriaren ez tandaren ardura, hein handi batean. Martínez Gorriarānek (1993: 189), esate baterako, erregeak Arantzazura egin zuen bisitari eman dio gako-izaria. Errege sineskorra omen zen.

Sorginkeriak, berriz, sorgintzaren gaineko mamu europar “aurrerakoia” ezarri zuen. Horregatik, beharbada, Salazar eta bere lagunena lana sorginkeriaren irrealtasuna frogatzea izan zen. Neurri batean lortu ondoren, sorgintza/sorginkeria berriro herri-mailara itzuli zen, ohiko fenomeno izatera pasatu zen alegia, garbi geratu zenean ez zuela muga hankaz gora jarriko. Alderantziz, muga sendotuz zihoan herri xumearen gainetik. Gutxieneko aginte mailakoek, batez ere, atxiki-mendu estatalak jorratu behar izan zituzten aberastasunari eta botereari loturik jarraitzeko, Estatu berrien hiriburuetan antolatzen ari ziren erregetza-moduak pareko xedeak eskatu baitzizkien (Mikelarena, 1998; Paul, 1998).

Urdazubiko monasterioak eta Alzate-Urtubitarren jaurgoak, gaiarekin loturik dauden heinean, aukerako adibidea eskaintzen dute beste kontu bat aztertzeko: jauntxoen eta herritarren arteko harreman-mota bat ulertzeko, hain zuzen ere, 1610.ekoa luzaroan izandako arazoan azaleratze traumatikoa baitugu.

XV. mendeko hirugarren hamarkadara arte monasterioko fraideek ez zuten izan arazo larririk mendekoekin (Zudaire, 1972-3). Mendekoak gutxi zirela dirudi. 1366ko apeoan San Salbatorek lau etxe zituen Zugarramurdin, Calvet Sotés jaunak deboziorik emanak, inguruko lur, mendi eta ur guztiekin. Baina 1432. urterako, herri-lur komunal eta mortuei buruz konkordia batera ailegatu behar izan zuen ordurako Zugarramurdin ziren hamabost bat etxerekin. Hamaika urteren buruan (1443) epaiketa behar zuten. Lur landuen agintea monasterioarena zen, hala nola etxeena eta errentena; epaitzeko eskumenak ere abadearenak ziren. Baina, zugarramurditarrek ordura arte bete behar zituzten joputza pertsonalak diru-zerga bihurtu zituen epaiak. Epai berean Nafarroako Gortera jotzeko eskumena eman zitzaion, udalaren garapena aholkatu zitzaion eta herri-lurretan luberriak egiteko aukera eskaini zitzaion, betiere monasterioaren lurra errespetatuz. Elizaren patronatu edo nagusigoa San Salbatorerena zen.

Egoerak ez zuen Baztaneko auzotarrenarekin antzik, azken horiena paradisu-koa ez bazen ere. Baztango “bizilagunekin” parekatu nahi izan zuten mende bat beranduago (1541) urdazubitarrek, monasterioak bere inguruan bildu zituen kolono berriek, alegia. 1483an bederatzi “su” zirenak hogeita bost “bizilagun-etxe” izatea nahi baitzen, orduan. Ez zuten lortu, inolaz ere. Epaietak erakusten du zer nolako ordainak egin behar zituzten gauzetan, joputza pertsonaletan eta abar. Dena den, gure aferari dagokionez haiek eskatzeko erabili zituzten argudioak dira garrantzitsuak. Kaparetasuna eta “bizilagunen” maila nahi zituzten, baina Tubalek, kantabrismoak edota iberismoak, ez zuten tokirik. Ez euren buruan, ez prokuradoretzat Lesakan aukeratu zituzten Juan de Erro, López de Suescun eta Juan Martínez de Lesaca jaunen buruetan ere.

“Bordari” edo “petxero” zirela ukatzeko —petxeroak jopuak ziren—, arrazoi zakar bat bururatu zitzaion:

(...) según confesaron los comparecientes, no pagaban al monasterio por derecho inmemorial que aquél detentara, sino por gracia u por costumbre; pues sin duda en el pasado aquellos frailes, como los de los otros conventos, debieron recorrer las tierras de Baztán y otras aldeañas en demanda de limosna y originarse de ahí lo que hoy reclamaban “viciosamente por obligación” (Zudaire, 1972: 321).

Fraideek, ordea, paperak zituzten. Errok epaiketa errekurritu zuen. Hamarrenak eta hasikinak beti ordaindu zirela zioen, baina:

el resto de sus contribuciones no deriva de derecho dominical alguno, sino que son a modo de limosna, coaccionados a veces por los mismos monjes, “que siempre han tenido a los defendientes muy subyugados y amedrentados, para hacerles hacer todo cuanto querían, amenazándoles con quemarles sus casas o hacérseles quemar por lacayos franceses”, entre los cuales “siempre han tenido muchos conocidos y amigos” (Zudaire, 1972: 322).

Batez ere, gauzen gaineko zergak eta joputza-zergak ukatzen ditu. Bidenabar, fraideekin ezin daitekeela fida azpimarratzen du, frantziarrekin tratuan aritzen baitira.

Monasterioak jorratu zuen beste iturri ekonomiko “klasikoa” ikus daiteke orain; azaldu da dagoeneko. Eliza-patronatuek hamarrenak eta hasikinak biltzeko eta kudeatzeko aukera ematen zieten nagusiei. San Salvatore-k ahal zuen neurrian garatu zituen Baztanen, betiere Orreagakoek eta Belatekoek edo beste nagusiek uzten zieten eremuan. Osorik eskuratu zituen Ainhoa, Elizondo, Aniz, Gartzain, Arraioz eta Eugikoak, Zugarramurdi eta Urdazubi alde batera utzirik. Erdibana zituen Erratzukoak eta Almandozkoak, eta Iruñea, Tafalla eta Elizondon zituzten etxaldeek eta jabegoek osatzen zituzten errentak. Daturik falta bada ere, atal hauek izan zuten igoera antzeman daiteke (Arizcun, 1988). Zer esanik ez artoaren baliabidearekin eta populazioaren hazkundearekin.

Beran, Hendaian eta Urruñan Altzate zirenek eta Alzate Urtubia garaikoez ere, Lope de Salazar jaunak bere *Las bienandanzas e fortunas* hartan aldarrikatu zuen jauntxoaren egiteko hura erabili zuten. Berako kasuak, bai sorginkeriaren afe-ran izan zuen garrantziagatik, bai ez zela diru borroka soila erakusten duelako, ohore-berdintasunaren eztabaidara itzularaziko gaitu.

Bera eta Altzatetarren artekoa aspaldikoa da. Familia honek aukeratu zuen gora egiteko bidean oztopo ugari agertu ziren. Lesakatik kanporatu zituzten, Alkaiaga auzoarekin etsaigo gorria gorde zutela dirudi, eta baita Berako goitiar auzoekin ere, eta Alzateko anitzekin, antza denez. 1402koa ez zuen batere gustokoa: Lesakak eta Berak hiri modura antolatzeke ahalmenak hartu zituzten, bizilagun berriak onartzeko, eta ordenantzak egiteko ahalmena. Beratarrak segituan harrotu ziren, gehiago zirelako, beharbada. Alzateko jaunarekin kexu, erretore bat eta itxurazko lau apaiz mantentzeko indarra zutela uste zuten, berrogei urtetan beste hainbat etxe egin zituztelako. Jauntxoaren etxeokak bat zetozen herritarrekin, betiere behin eta betiko aitortzen zitzaizkion apaizak “aurkezteko” eskumena eta lehentasun nabarmena elizan. Agertze izugarri bat, pausoz pauso arras zehaztua, legeztatu zuten epaiketa batez. Asteazkenero, elizkizunetan, argi eta garbi geratu zen, Berako elizan, nor zen balio handiena zuena. XV. mendea agortzen ari zaigu (Paul, 1998).

XVI.ean, ur uherrak. Komenentziaren arabera bi bandotan aritu ziren Alzate-Urtubitarrek, Labritetarrek eta Aragoiko Fernandok emandakoak aukeratzen, beratarraren laguntzarekin. Urtubiko jaurgoa berreskuratu —lege-arazoak izan zituzten— eta mugaren beste aldeko apustua egin zuten gero. Iraunkorrena, beharbada, Bera, Urruñea eta Donibane-Lohitzunek jasan zituzten eraso eta kontraerasoak izan ziren, “frantsak” eta “espainolak” eginak omen zirela eta. Hala ere, betiko ezagun horiek hartu zuten parte eta jasan zuten ondorioa. 1512, 1542, 1550, 1557... Beran, elizaren ezkila-dorrearen azpian biltzen zen udalbatzak ahots eta interes berriak ezagutu zituen, barne-borroka berriak ere bai... baina zaharrenak zihardu. Herriaren kargudunentzat eta herriarentzat orokorrean, ia kontu obsesiboa bihurtu zen.

XVII.eko hasieran (1604) Hualdearen kontra altxatuko ziren asko, Tristanek aurkeztu zuen apaiza zela eta. Ondorioz, Urtubitarrek, mendeku egarriz, errentan

eta maileguan utzitako lurak kendu zizkieten aurka aritu ziren zenbait herritarri, edota horrelako susmoa izanzen zuten haiei.

1608ko udazkenaz geroztik 1609ko abuztura arte, Bortziri guztiak eragin zuen borroka egon zen (Otazu, 1978). Dirudienez Altzatek, Zabaleta baten izendapena ezabatu nahi zuelako —«capitan y gobernador de las Cinco Villas de la Montaña»—, mota anitzetako arteak erabili zituen. Bortziritarrek ez zuten amore emanen Cardona erregeordeak agindua irakurrarazi arte herriz herri, «una vez en basquenz y otra en romance». Urtearen bukaeran sorginkeriaren “afera” martxan zegoen.

## 5. Ondorio gisara

Baztan-Bidasoako sorginkeriaren azterketak ondorio batzuk ateratzeko aukera ematen du, behin behinekoak eta betiere testuinguru zabal baten barruan. Horregatik Europako eta inguruko erreferentzia irekiak eginen ditugu.

Lehenik eta behin, Alzate-Urtubia jaurgoak eta San Salvatore monasterioak osatzen zuten gunean azaldu dira: aritu ziren “handikien” eskuetan hainbat hari eta baliabide nola elkartu ziren ikusi dugu; gupidarik gabe eta jakinaren gainean egonik, haiek nola tinkatu zituzten hariak; “Aquerlarre” hitzaren asmakuntzaren susmoaz hitz egin dugu<sup>1</sup>; herrietan zirikatuz, aginduz eta ezkutatzuz jokoia bete zuten frogak bildu ditugu; bereganatu zituzten eskarmentuak, erabili zituzten trikimailuak eta gehiegikeriak azaldu zaizkigu, neurri batean.

Auziarekin hasteko, gunearen muga txikiak ireki behar izan dira: sorginkeriak ez du tokiko barruti soil onartzen, gehiegikeria bortitzenak eremu txiki horretan gauzatzen badira ere. 1610ean gauzatu ziren moduan ere, urrutiko ikuspegiaren bat edo, zurikeriaren bat behar dute auzokideak histerian erorrarazteko. Sorginkeriarena bera izan da “teoria” abstraktu baten janzeraz datorren horietako bat.

Ez dugu bertako, tokiko, ekoizpen herritarra; are gutxiago herrikoia. Elite batzuek sortua, garatzeko eta indartzeko behar dituen baldintzak emanen dizkiote estatu modernoaren arteko gatazkek eta gerrek, nahiz politikoez, nahiz erlijioez. SozIALIZAZIOA, gizarte bakoitzeko tirabiren alorrean gertatzen denez, toki bakoitzean ezaugarri propioz azaltzen da. Eta desberdintasun ugaridun eszenatokiaren eredu bakarreko sorginkeria berberak izan zuen indartzeko aukera: Europa osoa zeharkatu zuen hark.

Herriak haserretik haserrera aritu ziren: sorgintza “natural” batetik zoritxarreko sorginkeria batera iraganaraziz, barne-kontraesan guztiak agertu ziren. Existentziarik ez zuen talde erlijioso sasi-politiko bati buruz “desinformatu” zen; kosta ala kosta, mende bateko borroka dela medio, kluxe estereotipatu hori indartu zen; asmakizuna astindu eta mamuen ugaltzea dugu, mekanismo klasiko edo ezagun batean; orduan ere horixe jarri zen martxan. Hondamen guztien “errudunak” bertan egoteak pizten duen histeria kolektiboak bere bidea egiten du: kalte eta zo-

---

1. Lan hau inprenta-bidean zela ezagutu dugu Henningsen-ek “El invento de la palabra *aquerlarre*” izenburuarekin argitaratu duen artikulua (Historia y Humanismo. Estudios en honor del profesor Dr. D. Valentín de Prada, 2000, 351-360). Osagarritzat har dezakegu lana, baina gure ustez Valle de Alvarado inkisidorearen ardura onartuta ere Alzate-Urtubia eta Aranibar jaunek izan zuten aferaren gakoa.

ritxar guztiak uler daitezke dogma berriaren magalean. Ezinegonak zurrunbiloetan elkartzuz, aterabidea eta itxurazko konponbidea izan zuen. Jaunaren erreinu ortodoxoaren aurkaria Txerrenaren edo Deabruaren erreinua dugu: nirekin edota nire aurka («que quien no es con Nos, es contra Nos»).

Jauntxoak, zentzu zabalean, estatu berrien eraketak emanen zizkien aukerak eta ereduak erabiltzen saiatu ziren, bakoitzaren eremuan zituzten etsaiak, aurkariak, eta batez ere mendeko asaldari liskartiak baretzeko. Froga zuzenik ez egotea espero zitekeen gauza da. Arazoak bertan daude, hori bai, eta inguru zabalago batean antzekoak errepikatuko dira. Toki guztietan joko berdina ez errepikatzea leku bakoitzaren baldintzen arabera ulertu behar da. Hala ere, sorginkeriaren aferan maiz su berdintsuarekin egosi den eltzea dugulakoan gaude.

Estamentuen munduan “jatorrizko” desberdintasuna betikoa eta betirako dela ukatzen zuenik bazen: herritar apalak ziren, apaltasun-maila desberdinekoak, bereziki ugariak Baztan-Bidasoan eta inguruan. Egia esateko, aipatutakoa ukatu baino gehiago, orokortzea landu zuten: guztiak ziren kapare, mairu odolik ez baitzuten. Berena lorturik (bizilagun-maila) eta salbu gordetzeko, sistema baztertzaila berri bat eraiki zuten araututako desberdintasunekin (biztanleena eta agoteena). Uholde gisa hedatuz doan urak ez du bazter bat ere idor uzten, ezta tokiz kanpo-koak suertatuko direnak ere (Urdazubiko “bordariak”).

Jaunengan harridura eta amorrua piztu zuen horrek guztiak, nahitaez. Eta erantzun desberdinak izan ziren: ezintasuna, gogorkeria, moldaketa, eurena berreskuratzeko saiakera antzuak... denetik ikus daiteke Otazuk (1973) arakatu zuen dokumentazioan. Harrigarria egin zaie “mendekoen” ausardia, jauntxoek eskumenak ukatzeko zerabiltzaten aburu ahulak eta, hala eta guztiz ere, goiko agintarien-gandik, batz bestea, jasotzen zuten laguntza (aroen arteko ezaugarri mugarrikoa). Ahal zuten jauntxoek aldeko dokumentazioa, agiriak eta tresna legalak zaindu zituzten, Altzatetarrek eta San Salbatorekoek esate baterako.

Herritar tematien aurrean, jauntxoek sorginkeriaren gisako gogorkeriak eta mendekuak gauzatu zituzten maiz (Arrasateko sutea eta sorginkeriaren aipamenak, adibidez, Ahaide Nagusien arteko gerran), okasioak bidea irekiz gero. Errege Borbondarren eta Austriatarren arteko muga bat finkatzea, okasio ezin hobea da —hori dela eta, Muchemblemdek aurkitu dituen parekotasunak: estatu-arrazoia, muga erlijiosoak, nekazari “errudunak” (1993)—.

Sorginkeriaren gezurra egia bihurtzen da gehienek mito hori onartzen dutenean. Sorginkeria eta “berdintasuna” mitoak elkartzea ez da huskeria kronologikoa, hausnarketarako bide bat baizik. Bakoitzak duen oinarri errealaz gain, egokitzeko eta sustatzeko erabiliko diren mekanismoek antzekoak dirudite. Rilovak bigarrenaren indarra frogatu du (1999) eta sorginkeriari buruz aurkeztu duen lanak (2000) gezurraren luzapena eta anbigutasuna plazaratzen du. Horiek dira jorratu beharko diren alorrak.

Sorginkeriak, bestalde, estalkia izateaz gain oinarria du: sorgintza deitu duguna. Arraiozen, sorgintza horrek badu, herritarrentzat, presentzia arrunta, barneratua, kezkarik sortzen ez duena, antza denez. Batzuek, Pedro Arrayoz de Zozaya eta Aldeko izeba (serora zena) dituzte sorgintzat. Testigantzen arabera,



bata gai zen harreman sexualak eta ugalketa oztopatzeko; bestea pultsua hartuz besoa elbarritzeko. Horrek, ahalmen horien erabilpenak, ez zuen auzia piztu, hala ere. Haurren salaketak behar izan ziren; gaizkinen taldekeriaren teoria ere behar zen; “aquerlar/aquel Lar/aquelar”-etara haurrak eramatea eta, batez ere, agintariak xaxatzea giroa. Haurrak ditugu erabakigarriak. Haur batzuen testigantza susmargarria salatu zuten lekuko batzuek eta, orotara, tortura bitartez lortutako aitorenak fidagarritasunik ez dute izanen, erantzun gidaturako esparruak diruditelako.

Badugu, bukatzeko, beste lekukotasun berezi bat. Berezia, ikasia delako; ospetsua, euskaraz idatzi zituen lanengatik; lekukoa, garai hartako urdazubitarra delako, eta aldameneko herri bateko erretorea. Axular dugu Sarako erretore. Azurmendik (1995: 23) Axularren isiltasuna azpimarratu du, *Gero* osoan sorginkeria buruz hitz bat bera ere idatzi gabe hamar bat kapitulu eskaini ziolako “Zenbat kalte egiten duen kolera eta etsaigoak” gaiari.

Anitzetan, isiltasuna solasa bezain adierazgarria dugu. Axularrek sorginkeria isiltasun bitartez ukatu zuen? Deabrua ez, ezta Deabru jaunak bilatzen zituen okasioak akerrez mozorrotzeko ere:

(...) Otsoak denbora gaitza, uritsua, eta igorziritsua, artaldeari oldartzeko: eta arranzaleak ur uherra arraiñaren atzemaiteko: hala deabruak ere, ohoin finak, otso goseak, eta arrantzale iakinsunak bezala, bilhatzeintu, kolera, hasarreduraren eta diferentzien ilhunbeak, tormentak, uherdurak, eta okhasinoak (...) Zeren kolera itsu da, hordi da, eta etsaia ere okhasinoaz probetxatzen da (...) egin behar da laster mediku-medizinetara, ahal diratekeien erremedioetara (...) Lehen baiño lehen, geroko luzatu gabe. Zeren suaren pare da kolera, eta badakizu, sua ttipi deiño, dela erraxenik iraungitzeko, eta hiltzeko (Axular, 1977: 319).

Altzateko armarrian, anitzetan bezala, bi otso dira ageri.

Ezaugarri pertsonal gisa azaldu zuen: «(...) haserretzea eztago ez hanbat egitekoaren balioan, nola presunaren kondizinoan. Batak antsiarik ez-tuenaz, bertzea iauzten, eta enkoniatzen da». Berezi ez-aproposak ikusten zituen holako pertsonak «herrien gobernatzeko» (Axular, 1977: 321).

Aldarrikatuko zituen erremedioak guztiz ortodoxoak ziren, konformistak alegia, amore ematean bide baitzegoen bertutea. Aldiz, kaltea «hi handi ni handi hisikaturik egoiteak, handitasunetan ibiltzeak» zekarren berarekin (Axular, 1977: 331).

Nolanahi ere, haserretik haserrera zehazkizunak behar ditugu. Haserre-mota bat dugu Arraiozko zenbait lagunen artekoa, eguneroko maila gainditzen ez duen hura, txutxumutxuen motiboa izan daitekeena, esate baterako, eta Henningsenek “Las víctimas de Zugarramurdi” artikuluan azaldu zuen bezala: «(...) en una sociedad rural donde se cree en la brujería, “malas vecinas” es sinónimo de brujas» (1978: 186). Normaltasunez ari zaigu, ia gertakari “natural” bati buruz. Holakoetan euri-jasa batek garbitzea da ohikoena.

Gertakaria berezi bihurtzen da, ordea, ohiko ez den botere batek parte hartzen duenean, errudunen dantza hasten denean, eguneroko hori beste maila batera eramaten denean. Bertako boteretsuek lortu zuten hori hemen. “Hi handi ni handi” hisikaturik aritu zirelako handitasunetan?

## Esker ona

Emaitza hobea merezi duten lanak izan badira ere, Txema Aldabe, Imanol Arratibel, Rafa Egiguren eta Fernando Mendiola lagunei esker aunitz eman nahi dizkiet, batez ere izan duten pazientzia apartagatik.

### Artxiboak

A.D.B.P. Archive Départemental des Basses Pyrénées.

A.D.P. Archivo Diocesano Pamplona.

A.G.N. Archivo General de Navarra.

A.H.N. Archivo Histórico Nacional.

B.U.A. Baztango Udal Artxiboa.

### Erreferentzia bibliografikoak

Aragón, A. (2001): "Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar", *Uztaro* **38**, 19-32.

Arizcun Cela, A. (1988): *Economía y Sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1600-1841*, Gobierno de Navarra, Iruñea.

Axular, P. (1977): *Gero*, Jakin, Oñati. [1. arg.1643].

Azurmendi, M. (1993): *Nombrar, embrujar*, Alberdania, Irun.

———, (1995): "La invención de la brujería". *Bitarte* **7**, 15-37.

Bilbao, G. (1994): "XII. mendeko euskal herria Santiago bidean", *Uztaro* **10**, 61-85.

Carnicer García, C.J. eta Marcos Rivas, J. (1998): *Sebastián de Arbizu. Espía de Felipe II*, Nerea, Madril.

Caro Baroja, J. (1970): *Inquisición, brujería y criptojudaismo*, Ariel, Bartzelona.

———, (1974): *Vasconiana. Linajes y bandos*, Txertoa, Donostia. [1. arg. 1957]

———, (1980): *Brujería vasca*, Txertoa, Donostia. [2. arg.]

Cohn, N. (1987): *Los demonios familiares de Europa*, Alianza Editorial, Madril. [1. arg. 1976]

Elias, N. (1988): *El proceso de la civilización*, F.C.E. España, Madril. [1. arg.1977].

Gallastegui Ucin, J.(1990): *Navarra a través de la correspondencia de los virreyes*, Gobierno de Navarra, Iruñea.

González de Garai, I. eta Stürtze, A. (1987): "Euskal sorgina: estereotipo bat", *Jakin* **44** 237-264.

Goñi Gaztanbide, J. (1971): "El tratado «De Superstitionibus» de Martín de Andosilla", *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* **9**, 249-322.

Goyhenetche, E. (1979): *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse-Navarre*, SNERD, Pabe.

Harris, M. (1974): *Vacas, cerdos, guerras y brujas*, Alianza Editorial, Madril. [1. arg. 1974].

Henningsen, G. (1978): "Las víctimas de Zugarramurdi. El origen de un gran proceso de brujería", *Saioak* **2**, 182-196.

———, (1983): *El abogado de las brujas*, Alianza Editorial, Madril. [1.arg.1980]

———, (1995): "El estudio de la brujería y la opinión pública", *Bitarte* **7**, 5-15.

Idoate, F. (1972): *Un documento de la Inquisición sobre brujería en Navarra*, Diputación Foral de Navarra, Iruñea.

- , (1978): *La brujería en Navarra y sus documentos*, Diputación Foral de Navarra, Iruñea.
- (1981): *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI*, Diputación Foral de Navarra, Iruñea.
- Jiménez de Aberasturi, J.C. (1980): “Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa”, *Príncipe de Viana* **160-161**, 263-405.
- Levack, B.P. (1995): *La caza de brujas en la Europa Moderna*, Alianza Editorial, Madrid.
- Madariaga, J. (1994): “Conflictos sociales de los siglos XVI-XVIII”, in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, El Mundo del País Vasco, Bilbo.
- Martínez Gorriarán, C. (1993): *Casa, provincia, rey*, Alberdania, Irun.
- Mikelarena, F. (1988): “Conflictividad social en la regata del Bidasoa durante la edad moderna”, *Boletín de Estudios del Bidasoa* **5**, 71-87.
- , (1989): “Conflictos entre linajes y comunidades de vecinos en el norte de Navarra”, *Espacio, Tiempo y Forma* **IV, 2**, Madrid.
- , (1991): “Transformaciones económicas y demográficas en el norte de Navarra en los siglos XVI y XVII”, *La evolución demográfica bajo los Austrias* [min-tegia].
- Muchembled, R. (1993): *Le roi et la sorcière*, Desclée, Paris.
- Ostolaza, M.I. (1999): *Gobierno y administración de Navarra bajo los Austrias*, Gobierno de Navarra, Iruñea.
- Otazu, A. de (1973): *El “igualitarismo” vasco. Mito y realidad*, Txertoa, Donostia.
- , (1978): “Brujería y régimen señorial en la montaña atlántica de Navarra”, in *Homenaje a J. Caro Baroja*, 827-842.
- Paul Arzak, J. (1998): “Bera, Botere eta gatazkak”, *Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak* **1**, 191-211.
- , (1999): “Brujería, frontera y poder”, *Bilduma* **13**, 161-193.
- Rilova, C. (1998): *El honor de los vascos*, Autoedición, Donostia.
- , (2000): “De nuevo sobre el tema de la brujería”, *Historia Social* **38**, 17-34.
- Satrustegui, J. (1993): “Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI”, *Fontes Linguae Vasconum*, **64**, 443-477.
- Zabala, M. (2001): “Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai”, *Uztaro* **39**, 39-52.
- Zabalza Seguin, A. (1999): “Con nombre y apellido”, *Vasconia* **28**, 317-332.
- Zudaire, E. (1972-73): “Monasterio premostratense de Urdax”, *Analecta praemonstratensia* **XLVIII** eta **XLIX**, 308-326 eta 7-40.